

**16/2025 FORU ARAUA, ABENDUAREN 12KOA, TALDE MULTINAZIONALENTZAT
ETA TALDE NAZIONAL HANDIENTZAT GUTXIENEO ZERGAPETZE MAILA
GLOBALA BERMATZEKO ZERGA OSAGARRIA EZARTZEN DUENA**

(ALHAO, 145. zk., 25-12-22koa)

ZIOEN AZALPENA

Azken urteotan, nazioarteko fiskalitatearen testuinguruan, Ekonomia Lankidetzak eta Garapenerako Erakundeak (ELGA) hainbat gomendio eman ditu zerga oinarriaren higadura eta etekinen lekualdaketa saihesteko (BEPS, ingelesezko sigletan). Nazioarteko neurri fiskalen multzo bat ere garatu du, besteak beste, enpresa taldeek posibleak zergapetzen ez dituzten edo posiblei zergapetze txikia ezartzen dieten herrialde edo lurraldeetara eramatea saihestu nahi dutenak. Neurri horiek gutxieneko ezarpen maila globala ezartzen dute finkatutako negozio zifraren zenbateko garbia 750 milioi eurokoa edo handiagoa duten talde multinazionalentzat. Legegintza politikaren xede hori «Ekonomiaren digitalizazioaren ondoriozko erronka fiskalak - Zerga-oinarriaren higaduraren aurkako ereduak arauak (Bigarren zatubea)» izeneko dokumentuan islatu zen, aurrerantzean «ELGAren ereduak arauak». Agiria 2021eko abenduaren 14an onetsi zen, Europar Batasuneko estatu kideak atxiki zitzaizkion BEPSri buruzko OCDE/G20 esparru inklusiboaren bidez.

Horrekin bat etorritik, Europar Batasunean, 2022ko abenduaren 15eko Kontseiluaren 2022/2523 (EB) Zuzentaraua onetsi zen, Batasunean dauden enpresa multinazionalen taldeentzako eta munta handiko talde nazionalentzako gutxieneko zergapetze-maila orokorra bermatzeari buruzkoa, aurrerantzean, 2022/2523 (EB) Zuzentaraua edo Zuzentaraua. Europar Batasuneko zuzentzarau hori estatu kide guztiek sartu behar dute beren legedian, 56. artikuluan aurreikusitako moduan.

2022/2523 Zuzentzarauak zerga osagarri bat ezartzen du, bermatzen duena, talde nazional handietako edo talde multinazionalentzako entitateek jurisdikzio jakin batean jasaten duten karga tasa ehuneko 15etik beherakoa bada, beste zerga bat jasanaraziko zaiela, zerga osagarria, karga tasa globala gutxieneko irits dadin, hau da, ehuneko 15era, errentak sartzeko arauaren bidez edo, bestela, gutxiegi zergapetutako posiblekin araua aplikatuz.

Foru arau honen bidez, aipatutako zuzentzaraua Arabako Lurralde Historikoan sartzeko betebeharra bete nahi da, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onetsitako Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren 20 bis artikuluan xedatutakoari jarraituz. Artikulu horretan ezartzen dira zerga osagarria araudi autonomoko zerga itundua izateko baldintzak.

Hori dela eta, foru arau honek arauak ezartzen ditu merkatu bakarrean diharduten talde multinazional handiei eta talde nazional handiei (gutxienez aurreko lau ekitaldietatik bitan finkatutako negozio zifraren zenbateko garbia 750 milioi eurokoa edo handiagoa dutenei) benetako gutxieneko zerga maila bermatzeko, 2021ean Esparru Inklusiboak lortutako Akordioarekin bat datozenak, eta Esparru Inklusibo horrek adostutako ELGAren ereduak arauak gertutik jarraituko dietenak.

Zerga Osagarria zuzeneko zerga pertsonala da, eta errentak sartzeko arauaren eta behar beste zergapetu gabeko mozkinen arauaren bidez egituratzen da. Zerga Osagarria hiru modalitatetan oinarritzen da: lehenengo biek errentak sartzeko arauari erantzuten diote, eta hirugarrenak, berriz, behar beste zergapetu gabeko mozkinen arauari: zerga osagarri nazionala, lehen mailako zerga osagarria eta bigarren mailako zerga osagarria.

Lehenik eta behin, zerga osagarri nazionala errentak sartzeko araua aplikatzearen emaitza da, zergaren aplikazio lurraldean dauden talde multinazionalak eta talde nazional handiak osatzen dituzten erakundeek lortutako errentei dagokienez.

Bigarrenik, lehen mailako zerga osagarria errentak sartzeko araua aplikatzearen emaitza da, zergaren aplikazio lurraldean ez dauden talde multinazionalak osatzen dituzten erakundeek lortutako errentei dagokienez.

Azkenik, bigarren mailako zerga osagarriak, behar beste kargatu gabeko mozkinen araua aplikatzearen ondorioz, gutxieneko tributazioa bermatzea ahalbidetzen du, talde multinazionalak lortutako errentei dagokienez, baldin eta errentak sartzeko arau onargarri bat aplikatuta zergapetu ezin izan badira.

Foru arau honek hamabost titulu ditu, berrogeita hamazortzi artikulua, sei xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen.

Foru arau hau bat dator Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan ezarritako erregulazio onaren printzipioekin. Premia eta eraginkortasun printzipioei dagokienez, arau hau beharrezkoa da zerga osagarria Europar Batasuneko araudiaren eta indarreko Ekonomia Itunaren arabera arautzeko. Proportzionaltasun printzipioarekin bat etorriz, adierazitako helbururako ezinbestekoa den erregulazioa biltzen du, ez baitago eskubideak gutxiago murrizten dituen aukera arautzailerik. Segurtasun juridikoaren eta efizientziaren printzipioen arabera, koherentea da ordenamendu juridikoarekin, eta baliabide publikoen kudeaketa eraginkorragoa ahalbidetzen du. Gardentasunaren printzipioa ere betetzen du, argi eta garbi identifikatzen baitu bere asmoa, eta, araua egiteko prozedura egiten ari zen bitartean hartzaile izan litezkeen parte hartze aktiboa ahalbidetu da, entzunaldiko izapidearen eta jendaurreko informazioaren bidez.

ATARIKO TITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Izaera eta xedea.

1. Zerga Osagarria zuzeneko zerga pertsonala da, eta talde multinazional bat edo tamaina handiko talde nazional bat osatzen duten erakundeek errentak zergapetzen ditu, foru arau honen 8. artikuluko 1. apartatuan aurreikusitakoak, baldin eta gutxieneko zerga tasa baino txikiagoa den zerga tasa efektiboa duen jurisdikzio batean badaude, jurisdikzio mailan kalkulatuta, foru arau honetako arauen arabera, 2022ko abenduaren 15eko Kontseiluaren 2022/2523 (EB) Zuzentarauarekin bat etorriz. Zuzentarau hori Europar Batasunean enpresa multinazionalen taldeentzako eta talde nazional handientzako gutxieneko zerga maila globala bermatzeari buruzkoa da.

2. Foru arau honen xedea da Zerga Osagarri bat arautzea, Foru Arau honen 8. artikuluko 1. apartatuan definitutako talde multinazional edo nazional handi baten errenten gutxieneko zergapetze efektiboa bermatzeko, errenta horiek zergapetze maila txikia duten jurisdikzioetan lortu badira, modu honetan:

a) Zerga osagarri nazional bat. Horren arabera, talde multinazional edo nazional handi bat osatzen duten erakunde guztiak, zerga aplikatzen den lurraldean kokatuta daudenak, erakunde horiek lortutako zerga oinarriaren arabera zergapetuko dira, foru arau honetan xedatutakoaren arabera, foru arau honen 25. artikuluan aurreikusitako karga tasa aplikatuta;

b) Lehen mailako zerga osagarri bat. Horren arabera, talde multinazional bateko jatorrizko erakundea, zerga aplikatzen den lurraldean dagoena, zerga osagarriari egotz dakioken zatiaren mende egongo da, foru arau honen arabera zehaztuta, zergaren aplikazio lurraldean ez dauden talde multinazionalerako erakundeen errentei dagokienez, baldin eta errenta horiek, jurisdikzio mailan, gutxieneko zerga tasatik beherako zerga tasan zergapetu badira, foru arau honen arabera (errentak sartzeko araua);

c) Bigarren mailako zerga osagarri bat. Horren arabera, talde multinazional bateko erakunde bat, zerga aplikatzen den lurraldean dagoena, zerga osagarriaren zenbatekoaren mende egongo da, foru arau honen arabera zehaztuta, zergaren aplikazio lurraldean ez dauden eta errentak sartzeko arau onargarri baten mende ez dauden talde multinazionalerako erakundeen errentei dagokienez, baldin eta errenta horiek, jurisdikzio mailan, gutxieneko zerga tasatik beherako zerga tasan zergapetu badira, foru arau honen arabera (behar beste kargatu gabeko mozkinen araua).

2. artikulua. Aplikazio eremu subjektiboa eta lurraldetasuna.

1. Foru arau honetan xedatutakoa honako kasu hauetako batean dauden zergadunei aplikatuko zaie:

a) Talde multinazional bateko edo tamaina handiko talde nazional bateko kide diren zergadunak, baldin eta Espainiako lurraldean, aldi berean, zerga baterakuntzaren foru araubideari lotutako zerga talde bat eta lurralde erkideko zerga baterakuntzaren araubideari lotutako beste bat badituzte, eta foru arau honen 8.5 artikuluan aipatzen den zergadunaren ordezkari Sozietateen gaineko Zergari edo, hala badagokio, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Arabako Lurralde Historikoaren araudia aplikatzen bazaio.

Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, sozietateen gaineko zergaren edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren azken zergaldiari dagokion (zerga osagarriaren sortzapen egunean amaituta dagoena edo amaitu dena) araudia hartuko da kontuan.

b) Talde multinazional bateko edo tamaina handiko talde nazional bateko kide diren zergadunak, baldin eta Espainiako lurraldean ez badute zerga baterakuntzaren foru araubideari lotutako talde fiskal bat eta lurralde erkideko zerga baterakuntzaren araubideari lotutako beste talde fiskal bat, eta foru arau honen 8.5 artikuluan aipatzen den zergadunaren ordezkari zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan badu.

Nolanahi ere, ez da aurreko apartatuan xedatutakoa aplikatuko, baldin eta talde multinazionalaren edo tamaina handiko talde nazionalaren eragiketa bolumena 12 milioi eurotik gorakoa izan bada aurreko ekitaldian, eta ekitaldi horretan taldeak bere eragiketa bolumenaren ehuneko 75 edo gehiago egin badu lurralde erkidean edo, bestela, Euskal

Autonomia Erkidegoan egindako eragiketa guztiak lurralde historiko batean edo beste bietan egin badira.

2. Foru arau honetan xedatutakoa aplikatuko zaie, halaber, talde multinazional bateko edo tamaina handiko talde nazional bateko kide diren zergadunei, baldin eta Espainiako lurraldean ez badute foru zerga baterakuntzaren araubideari lotutako talde fiskal bat eta lurralde erkideko zerga baterakuntzaren araubideari lotutako beste talde fiskal bat, eta foru arau honen 8.5 artikuluan aipatzen den zergadunaren ordezkioak zerga egoitza Bizkaian edo Gipuzkoan badu, betiere honako baldintza hauek betetzen badira:

- Taldearen eragiketa bolumena 12 milioi eurotik gorakoa izan bada aurreko ekitaldian.

- Ekitaldi horretan. taldeak ez badu egin lurralde erkidean euren eragiketa bolumenaren %75 gutxienez.

- Aurreko ekitaldian. taldeak Euskal Autonomia Erkidegoan egindako eragiketa guztiak Araban egin baditu edo, Araban eta foru arau honen 8.5 artikuluan aipatzen duen zergadunaren ordezkioaren zerga egoitza ez daukan beste lurralde historiko batean egin badituzte, eragiketa bolumenaren zatirik handiena Araban egin bada.

3. Halaber, foru arau honetan xedatutakoa aplikatuko zaie talde multinazional bateko edo tamaina handiko talde nazional bateko kide diren zergadunei, baldin eta Espainiako lurraldean ez badute foru zerga baterakuntzaren araubideari lotutako talde fiskal bat eta lurralde erkideko zerga baterakuntzaren araubideari lotutako beste talde fiskal bat, eta foru arau honen 8.5 artikuluan aipatzen den zergadunaren ordezkioak zerga egoitza lurralde erkidean badu, betiere honako baldintza hiru hauek betetzen badira:

- Taldeak egindako eragiketa bolumena 12 milioi eurotik gorakoa izan bada aurreko ekitaldian.

- Taldeak, guztira, eragiketa bolumenaren ehuneko 75 gutxienez Euskal Autonomia Erkidegoan egin badu.

- Taldeak Araban egindako eragiketa bolumena beste lurralde historiko bietako bakoitzean egindakoa baino handiagoa bada.

4. Aurreko apartatuetan xedatutakoaren ondorioetarako, eta Foru Arau honetako 3. artikuluko 1. apartatuko a) eta b) letretan ezarritako 12 milioi euroko kopuruari dagokionez, taldeko eragiketen bolumena hau izango da: Espainian egoitza duen entitate eratzaille bakoitzaren sozietateen gaineko zergaren edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren ondorioetarako eragiketa bolumenaren batura edo gehikuntza, bidezkoak diren taldearteko kenketak egin aurretik, aipatutako zergen azken zergaldiaren aurreko zergaldiari dagokiona (zerga osagarriaren sortzapen egunean amaituta dagoena edo amaitu dena). Taldeak lurralde bakoitzean egindako eragiketen bolumena hau izango da: Espainiako lurraldean kokatutako entitate eratzaille bakoitzak lurralde bakoitzean egindako eragiketen batura edo gehikuntza, bidezkoak diren taldearteko kenketak egin aurretik, ondorio horietarako sozietateen gaineko zergaren edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren arauen arabera aldi bererako zehaztu direnak edo zehazten direnak.

5. Zerga Osagarria Espainiako lurralde osoan aplikatuko da.

Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, Espainiako lurraldeak barne hartzen ditu, halaber, Espainiako Erresumak dagozkion eskubideak balia ditzakeen lurralde uren ondoko zonak, itsas zoru eta zorupeari, itsasoaz gaindiko urei eta baliabide

naturalei dagokienez, Espainiako legeriarekin eta nazioarteko zuzenbidearekin bat etorritz.

3. artikulua. Ordainarazpena

1. Arabako Foru Aldundiari dagokio zergadun bakoitzaren zerga osagarri nazionala, lehen edo bigarren mailakoa, ordainaraztea:

a) Berak oso-osorik, subjektu pasiboaren zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan badago eta aurreko ekitaldiko eragiketa bolumena 12 milioi euro baino gehiago izan ez bada.

b) Sozietateen gaineko Zergaren edo, hala badagokio, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren azken zergaldiari, zerga osagarria sortzen den egunean amaitzen edo amaitu denari, dagokionez, Araban egindako eragiketa bolumenaren proportzioan, baldin eta aurreko ekitaldian egindako eragiketa bolumena 12 milioi eurotik gorakoa izan bada.

2. Aipatutako zergaldian sozietateen gaineko zerga edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga zerga-taldeen zerga baterakuntzako araubidea aplikatuz ordaindu duten zergadunen kasuan, zerga taldearen eragiketen bolumena hartuko da kontuan.

3. Artikulu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, eragiketen bolumenaren kontzeptua eta gauzatzeko tokia Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 5. eta 6. artikuluetan xedatutako moduan zehaztuko dira.

4. artikulua. Itunak eta hitzarmenak.

Foru arau honetan ezarritakoak ez du ezertan eragotziko Espainiako barne antolamenduaren osagai bihurtu diren nazioarteko itunetan eta hitzarmenetan xedatutakoa.

5. artikulua. Zerga egoitza.

1. Zergadunen zerga egoitza Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 4. artikuluan ezarritakoaren arabera zehaztuko da.

2. Egoitza Espainiako lurraldean ez duten zergadunen establezimendu iraunkorren kasuan, zerga egoitza Araban izango dute, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko ekainaren 18ko 21/2014 Foru Arauaren 11.1 artikuluan jasotakoarekin bat etorritz.

I. TITULUA

Zerga egitatea

6. artikulua. Zerga egitatea.

1. Zerga osagarriaren zerga egitatea izango da zerga maila txikia duten erakunde eratzailiek errenta lortzea, foru arau honen xedapenen arabera.

2. Era berean, talde multinazional bat edo tamaina handiko talde nazional bat osatzen duten erakundeek lortutzat joko dira foru arau honen xedapenen arabera egozten zaizkien errentak.

II. TITULUA

Definizioak

7. artikulua. Definizioak.

Foru arau honen ondoreetarako, honako hauek finkatu dira:

1) «kreditu fiskal itzulgarri onargarria»:

a) Erakunde eratzaile bati eskudirutan edo bitarteko baliokideen bidez lau urteko epean ordaintzeko moduan diseinatutako kreditu fiskal itzulgarria, erakunde eratzaileak kreditua ematen duen jurisdikzioaren legeriaren arabera itzuli beharreko kreditu fiskala jasotzeko eskubidea duenetik zenbatzen hasita; edo

b) Kreditu fiskala partzialki itzulgarria bada, erakunde eratzaile bati eskudirutan edo bitarteko baliokideetan lau urteko epean ordaindu beharreko kreditu fiskal itzulgarriaren zatia, erakunde eratzaileak partzialki itzulgarria den kreditu fiskala jasotzeko eskubidea duen egunetik zenbatzen hasita;

Kreditu fiskal itzulgarri onargarri batean ez da sartuko egotzitako zerga onargarri baten edo egotzitako zerga itzulgarri ez onargarri bat aplikatuta itzulgarria ego egozgarria den zerga baten zenbatekorik;

2) «kreditu fiskal itzulgarri ez onargarria»: kreditu fiskal itzulgarri onargarria ez den baina zati batean edo osorik itzulgarria den kreditu fiskala;

3) «lehiaren distortsio nabarmena»: berariazko printzipio edo prozedura bat aplikatzeari dagokionez, oro har onartutako kontabilitate printzipio multzo baten esparruan, zergaldi batean diru sarrera edo gastuetan 75 milioi euro baino gehiagoko aldaketa agregatua gertatzen den egoera bat, dagokion printzipio edo prozedura edo finantza informazioko nazioarteko arauen arabera prozedura aplikatuta zehaztuko litzatekeen zenbatekoarekin alderatuta [Europar Batasunak onartutako Finantza Informazioko Nazioarteko Arauak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren kontabilitateko nazioarteko arauak aplikatzeari buruzko 2002ko uztailaren 19ko 1606/2002 (EE) Erregelamenduaren arabera];

4) «erakundea»: finantza kontabilitate bereizia daraman pertsona juridiko oro edo legezko akordio edo tresna juridiko oro.

5) «erakunde eratzailea»;

a) Talde multinazional bateko edo tamaina handiko talde nazional bateko kide den erakunde oro; eta

b) Erakunde nagusi bateko establezimendu iraunkor oro, aurreko a) letran aipatutako talde multinazional bateko kide bada;

6) «zerga maila txikia duen erakunde eratzailea»:

a) Talde multinazional bat edo tamaina handiko talde nazional bat osatzen duen erakunde bat, zerga maila txikiko jurisdikzio batean kokatua; edo

b) Egoitzarik ez duen erakunde eratzaile bat, zergaldi bati dagokionez gutxieneko zerga tasa baino irabazi onargarri eta zerga tasa efektibo txikiagoak dituen;

7) «erakunde eratzaile aitortzailea»: zerga osagarriaren aitorten informatiboa aurkezten duen erakundea, foru arau honen 49. artikularen arabera;

8) «inbertsio erakundea»:

a) Inbertsio funts bat edo higiezinetakoa inbertsio tresna bat;

b) Aurreko a) letran jasotako erakunde batek edo erakunde horien kate baten bidez gutxienez ehuneko 95ean zuzenean parte hartutako erakunde bat, aktiboak edukitzeko edo haren onurako funtsak inbertitzeko bakarrik edo ia eskusiboki diharduena; edo

c) Aurreko a) letran jasotako entitateetako batek gutxienez ehuneko 85en parte hartutako erakunde bat, baldin eta haren diru sarrera guztiak funtsean dibidenduetatik edo kapital irabazi edo galeretatik badatoz, eta horiek foru arau honen ondorioetarako onar daitezkeen irabazi edo galeren kalkulutik kanpo badaude;

9) «pentsio zerbitzuetakoa erakundea»: 22. puntuko a) letran aipatzen diren erakundeen onurarako funtsak inbertitzeko edo 22. puntuko a) letran aipatzen diren jardura arautuen jardura lagungarriak egiteko soilik edo ia eskusiboki eratuta diharduen erakundea, baldin eta pensio zerbitzuetakoa erakundea araututako jardura horiek egiten dituzten erakundeen talde berekoa bada;

10) «izendatutako erakunde aitortzailea»: erakunde eratzailea, azken jatorrizko erakundea ez dena, talde multinazionalak edo tamaina handiko talde nazionalak izendatu duena foru arau honen 49. artikuluan ezarritako informazio betebeharrak betetzeko, talde multinazionalaren edo tamaina handiko talde nazionalaren kontura;

11) «jatorrizko erakundea»: erakunde baztertua, bitarteko jatorrizko erakundea edo partzialki parte hartutako jatorrizko erakundea ez den azken jatorrizko erakundea;

12) «bitarteko jatorrizko erakundea»: zuzenean edo zeharka, talde multinazional bera edo tamaina handiko talde nazionala osatzen duen beste erakunde bateko partaidetzaren titularra den erakunde eratzailea, azken jatorrizko erakundetzat, partzialki parte hartutako jatorrizko erakundetzat, establezimendu iraunkortzat, inbertsio erakundetzat edo aseguruetakoa inbertsio erakundetzat hartu ezin dena;

13) «partzialki parte hartutako jatorrizko erakundea»: zuzenean edo zeharka, talde multinazional bera edo tamaina handiko talde nazionala osatzen duen beste erakunde bateko partaidetzaren titularra den erakunde eratzailea, baldin eta haren mozkinetako partaidetzaren % 20 baino gehiago, zuzenean edo zeharka, talde multinazional hori edo tamaina handiko talde nazional hori osatzen duten erakundeak ez diren pertsona batek edo batzuek badaukate, eta azken jatorrizko erakundetzat, establezimendu iraunkortzat, inbertsio erakundetzat edo aseguruetakoa inbertsio erakundetzat hartzen ez bada;

14) «azken jatorrizko erakundea»:

a) Zuzenean edo zeharka beste edozein erakunderen gaineko kontroleko partaidetza duen erakunde bat, zuzenean edo zeharka, erakunde horren kontrola edo kontroleko partaidetza duen beste erakunde baten jabetzakoa ez dena; edo

b) Talde bateko erakunde nagusia, 24. puntuko b) letran definitzen den moduan.

Ez dira azken jatorrizko erakundetzat hartuko artikuluko honetako 16. puntuan jasotako erakunde publikoaren definizioa betetzen duten funts subiranoak;

15) «erakunde nagusia»: finantza egoeretan establezimendu iraunkor baten kontabilitate emaitza jasotzen duen erakundea;

16) «erakunde publikoa»: honako irizpide hauek betetzen dituen erakunde oro:

a) Administrazio publiko batean sartuta badago edo osorik haren jabetzakoa bada, administrazio horren edozein azpi banaketa edo toki agintaritza barne;

b) Ez badu inolako merkataritza edo enpresa jarduerarik egiten, eta honako hauek baditu xede nagusi:

i) Administrazio publikoko eginkizuna betetzea; edo

ii) Administrazio publikoaren edo jurisdikzioaren aktiboak kudeatzea edo inbertitzea, administrazio edo jurisdikzio horren aktiboei lotutako inbertsioak eginez eta horiek mantenduz, aktiboak kudeatuz eta inbertsio jarduerak eginez;

c) Administrazio publiko bati bere etekin globalaren berri ematen badio eta urteko informazioa ematen badu; eta

d) Desegiteko unean, aktiboak administrazio publiko bati egozten bazaizkio, eta irabazi garbiak banatzen dituzten neurrian, irabazi horiek administrazio horri soilik banatzen bazaizkio, etekin horien ezein atalek ezin izango diolarik partikular bati mesede egin;

17) «entitate eratzaile baten erakunde titularra»: zuzenean edo zeharka, talde multinazional bera edo tamaina handiko talde nazional bat osatzen duen beste erakunde batean partaidetza duen erakunde eratzailea;

18) «erakunde gardena»: sortu den jurisdikzioan dituen sarrera, gastu, irabazi edo galerei dagokienez, zerga ondorioetarako gardena den erakundea, salbu eta zerga egoitza badu eta beste jurisdikzio batean bere errenta edo irabazien gaineko zerga estali baten mende badago.

Erakunde garden bat hau izan daiteke:

a) Zerga ondorioetarako erakunde garden bat, bere diru sarrera, gastu, irabazi edo galerei dagokienez, bere partaidetzen titularra kokatuta dagoen jurisdikzioan zerga ondorioetarako gardena den neurrian;

b) Alderantzizko erakunde hibrido bat, bere diru sarrera, gastu, galera edo irabaziei dagokienez, zerga ondorioetarako gardena ez bada bere partaidetzen titularra kokatuta dagoen jurisdikzioan.

Definizio horren ondorioetarako, erakunde gardena izango da, zerga ondorioetarako, erakunde bat zeinaren diru sarrerak, gastuak, irabaziak edo galerak jurisdikzio bateko legeriak tratatuko baititu erakunde horren titularrari zuzenean egokituko balitzaizkio bezala, erakunde horretan duen partaidetzarekiko modu proportzionalean.

Erakunde eratzailearen definizioa betetzen duen erakunde edo establezimendu iraunkor bateko partaidetza zeharka erakunde gardenen kate baten bitartez bideratzen denean zerga ondorioetarako, partaidetza hori zerga ondorioetarako egitura garden baten bitartez gauzatzen dela ulertuko da.

Erakunde eratzailea, ez badu zerga egoitzarik eta ez badago estalita dagoen zerga baten edo bere kudeaketa tokiaren, sorlekuaren edo antzeko irizpideen arabera onargarria den zerga osagarri nazional baten mende, erakunde gardena eta zerga ondorioetarako erakunde gardena izango da bere diru sarrera, gastu, irabazi edo galerei dagokienez, honako baldintza hauek betetzen baditu:

a) Titularrak erakundea, zerga ondorioetarako, garden gisa tratatzen duen jurisdikzio batean badaude;

b) Sortu den jurisdikzioan establezimendurik ez badu; eta

c) Diru sarrerak, gastuak, irabaziak edo galerak establezimendu iraunkor bati egoztekoak ez badira;

19) «establezimendu iraunkorra»:

a) Negozio leku bat edo halakotzat hartzen den leku bat, zerga hitzarmen aplikagarri baten arabera establezimendu iraunkor gisa tratatzen den jurisdikzio batean kokatua, betiere jurisdikzio horrek ELGaren Errentari eta Ondareari buruzko Zerga Hitzarmenaren Ereduaren 7. artikuluen antzeko xedapen baten arabera, berrikusitako azken bertsioan, egozten zaion errenta zergapetzen badio;

b) Zerga hitzarmen aplikagarriarik ez badago, negozio leku bat edo halakotzat hartutako leku bat, establezimendu horri egotz dakiokeen errenta garbia bere zerga egoiliarrei zergapetzen dienaren antzera zergapetzen duen jurisdikzio batean kokatua;

c) Jurisdikzio batek ez badu enpresen mozkinak zergapetzen dituen zergaren araubiderik, negozio leku bat edo halakotzat hartutako leku bat, jurisdikzio horretan kokatua, establezimendu iraunkor gisa tratatuko litzatekeena ELGaren Errentaren eta Ondarearen gaineko Zerga Hitzarmenaren Ereduaren arabera, berrikusitako bertsioan, betiere jurisdikzio horrek eskubidea izan badu establezimenduari egotz dakizkiokeen errentak zergapetzeko, hitzarmen horren 7. artikuluen arabera; edo

d) Negozio leku bat edo halakotzat hartutako leku bat, aurreko a) letratik c) letrara bitartean deskribatu gabea, haren bitartez erakundea kokatuta dagoen jurisdikziotik kanpoko eragiketak egiten badira, betiere jurisdikzio horrek eragiketa horiei egotz dakizkiekeen errentak salbuesten baditu;

20) «finantza egoera bateratuak»:

a) Erakunde batek kontabilitate finantzarioko arau onargarri baten arabera egindako finantza egoera bateratuak, arau horren arabera, erakunde horren edo kontrola edo kontroleko partaidetza duen edozein erakunderen aktiboak, pasiboak, sarrerak, gastuak eta diru fluxuak unitate ekonomiko bakar batenak balira bezala aurkezten badira;

b) Artikulu honetako 24. puntuko b) letran definitutako taldeen kasuan, erakundeak finantza kontabilitateko arau onargarri baten arabera egindako finantza egoerak;

c) Finantza kontabilitateko arau onargarri baten arabera egin ez diren eta gerora, lehiaren edozein distortsio esanguratsu saihesteko, egokitu diren azken jatorrizko erakundearen finantza egoerak; eta

d) Azken jatorrizko erakundeak aurreko a), b) edo c) letretan deskribatutakoaren arabera finantza egoerarik egiten ez duenean, azken jatorrizko erakundea finantza egoera horiek egitera behartuta balego egingo ziren finantza egoerak, honako hauen arabera:

i) Finantza kontabilitateko arau onargarri bat; edo

ii) Finantza kontabilitateari buruzko beste arau bat, betiere finantza egoera horiek lehiaren edozein distortsio esanguratsu saihesteko egokitu badira;

21) «inbertsio funtsa»: baldintza hauek betetzen dituen erakunde edo mekanismo bat:

- a) Zenbait inbertsiogileren aktibo finantzarioak edo ez finantzarioak bateratzeko diseinatuta egotea, inbertsiogile horietakoren bat lotuta ez badago;
- b) Zehaztutako inbertsio politika bati jarraituz inbertitzea;
- c) Inbertitzaileei aukera ematea eragiketa, ikerketa eta analisi kostuak murrizteko edo arriskua kolektiboki banatzeko;
- d) Batez ere inbertsio errentak edo irabaziak sortzeko diseinatuta egotea, edo gertakari edo emaitza zehatz edo orokor baten aurrean babesteko;
- e) Inbertsiogileek funtsaren aktiboetatik edo aktibo horietatik lortutako errentetatik eratorritako etekinak izateko eskubidea izatea, egin duten ekarpenaren arabera;
- f) Hura edo haren kudeaketa finkatuta dagoen edo kudeatzen den jurisdikzioko inbertsio funtsen araubide arautzailearen mende egotea, bereziki kapitalen zuriketaren aurka borrokatzeko eta inbertsiogileak babesteko erregulazio egokiaren mende egotea; eta
- g) Inbertsio funtsen kudeaketako profesionalek kudeatzea, inbertsiogileen kontura;

22) «pentsio funtsa»:

- a) Pertsona fisikoei erretiro prestazioak eta prestazio osagarriak kudeatzeko edo emateko eskusibo edo ia eskusibo jurisdikzio batean eratuta dagoen eta diharduen erakunde bat, baldin eta:
 - i) Erakunde hori jurisdikzio horrek edo haren azpibanaketa politikoetako batek edo tokiko agintariek halakotzat araututa badago; edo
 - ii) Prestazio horiek araudi nazionalak beste era batera bermatu edo babesten baditu, eta akordio fiduziario edo fideikomisogile baten bidez edukitako aktibo multzo batek finantzatzen baditu, pentsioen arloko betebeharrak betetzen direla bermatzeko, talde multinazionalen eta tamaina handiko talde nazionalen kaudimengabezia kasu baten aurrean;

b) Pentsio zerbitzuetako erakunde bat;

23) «irabazi edo galera onargarriak»: erakunde eratzaile baten kontabilitate emaitza, foru arau honetan ezarritako arauen arabera doitua;

24) «taldea»:

- a) Kontrolaren edo kontroleko partaidetza baten bidez erlazionatuta dauden erakundeen multzo bat, azken jatorrizko erakunde ak finantza egoera bateratuak egiteko finantza kontabilitateko arau onargarrian definitzen den bezala, azken jatorrizko erakundearen finantza egoera bateratuetatik kanpo gera daitekeen edozein erakunde barne, haren tamainan, garrantzi erlatiboko arrazoietan edo salmentarako edukitzean oinarrituta soilik; edo
- b) Erakunde nagusi bat eta establezimendu iraunkor bat edo gehiago, baldin eta erakunde hori ez bada beste talde bateko kide, aurreko a) letran xedatutakoarekin bat etorritz;

25) «talde multinazionala»: azken jatorrizko erakundearen jurisdikzioan kokatuta ez dagoen erakunde edo establezimendu iraunkor bat gutxienez duen talde oro;

26) «tamaina handiko talde nazionala»: erakunde eratzaile guztiak zerga aplikatzen den lurraldean kokatuta dauden edozein talde;

27) «Zerga Osagarria»: zerga osagarri nazionala, lehen mailako zerga osagarria (errentak sartzeko araua) eta bigarren mailako zerga osagarria (behar beste zergapetu gabeko mozkinen araua), foru arau honetan xedatutakoaren arabera kalkulatu;

28) «Zerga osagarri nazional onargarria»: jurisdikzio bateko zuzenbide nazionalen aplikatzen den zerga osagarria, betiere jurisdikzio horrek arau horiekin lotutako onurarik ematen ez badu eta:

a) Jurisdikzio horretan kokatutako erakunde eratzailen zerga oinarria zehaztea xedatzen badu, Kontseiluaren 2022ko abenduaren 15eko 2022/2523 (EB) Zuzentarauan, enpresa multinazionalen taldeentzako eta Batasuneko talde nazional handientzako gutxieneko zergapetze maila globala bermatzeari buruzkoan, ezarritako arauen arabera, edo, hirugarren jurisdikzioei dagokienez, ELGAren ereduazko arauen arabera, eta zerga oinarri horri gutxieneko zerga tasa aplikatuta jurisdikzioarentzat eta erakunde eratzailentzat aipatutako zuzentarauan ezarritako arauen arabera edo, hirugarren jurisdikzioei dagokienez, ELGAren ereduazko arauen arabera; eta

b) Zuzentzari horretan ezarritako arauarekin bat etorritik administratzen bada, edo, hirugarren jurisdikzioei dagokienez, ELGAren ereduazko arauarekin bat etorritik;

29) «egotzitako zerga itzulgarri ez onargarria»: erakunde eratzailen batek sortutako edo ordaindutako edozein zerga, egotzitako zerga onargarria ez dena:

a) Erakunde eratzailen horrek dibidendu horrekin lotuta banatutako dibidendu baten onuradun efektiboari itzuli beharrekoa bada edo onuradun efektiboak dibidendu horiei lotuta zerga zorraz bestelako zerga zori bati egotzeko modukoa bada; edo

b) Banaketa hori egiten den unean akziodun bati dibidendu bat banatzen dion sozietateari itzuli beharrekoa bada.

Definizio honen ondorioetarako, «egotzitako zerga onargarria» izango da erakunde eratzailen batek sortutako edo ordaindutako zerga estalia, establezimendu iraunkorrek barne, erakunde eratzailenak banatutako dibidenduen onuradun efektiboari itzul dakiokeena, edo, establezimendu iraunkor batek sortutako edo ordaindutako zerga estaliaren kasuan, erakunde nagusiak banatutako dibidendua, itzulketa aitortzen badiu edo kreditua ematen badiu:

a) Estalitako zergak aplikatu dituenaz bestelako jurisdikzio batek;

b) Kargatutako dibidenduen onuradun efektibo bati, baldin eta erakunde eratzailenak zergak aplikatu dizkion jurisdikziozko zuzenbide nazionalaren arabera jasotako dibidenduen gaineko gutxieneko zerga tasaren pareko edo gehiagoko tasa nominala duen zergaren mende badago; edo

c) Dibidenduen onuradun efektiboa den eta erakunde eratzailenak estalitako zergak aplikatu dizkion jurisdikzioan zerga egoitza duen pertsona fisiko bati, baldin eta errenta arruntei aplikatu beharreko zerga tasaren pareko tasa nominala edo handiagoa duen zergaren mende badago; edo

d) Erakunde publiko bati, nazioarteko erakunde bati, irabazteko xederik gabeko erakunde egoiliar bati, pentsio funts egoiliar bati, talde multinazionalen edo tamaina handiko talde nazionalen kide ez den inbertsio erakunde egoiliar bati, edo bizi arloan diharduen aseguru erakunde bati, baldin eta dibidendua jasotzen bada pentsio funts egoiliarreko jarduerekin lotuta eta pentsio funts batek jasotako dibidendu baten antzera zergapetzen bada.

d) letra honen ondorioetarako:

i) Irabazteko xederik gabeko erakunde bat edo pentsio funts bat jurisdikzio bateko egoiliarra da, jurisdikzio horretan sortu eta kudeatzen bada;

ii) Inbertsio erakunde bat jurisdikzio bateko egoiliarra da, jurisdikzio horretan sortu eta arautzen bada;

iii) Bizi arloan jarduten duen aseguru erakunde bat kokatuta dagoen jurisdikzioan da egoiliarra;

30) «Higiezineta inbertsio tresna»: titulartasun handiko erakunde bat, nagusiki, zuzenean edo zeharka, ondasun higiezinak dituen eta zerga maila bakarrari lotuta dagoena, bertan edo bere interesen titularretan, gehienez ere urtebeteko atzerapenarekin;

31) «zerga maila txikia duen jurisdikzioa»: talde multinazional bati edo tamaina handiko talde nazional bati dagokionez edozein zergalditan, estatu kide bateko jurisdikzio bat edo hirugarren jurisdikzio bat, zeinean talde multinazionalak edo tamaina handiko talde nazionalak irabazi onargarriak dituen eta gutxieneko zerga tasa baino txikiagoa den zerga tasa efektibo bati lotuta dagoen;

32) «finantza kontabilitateko arau onargarria»: finantza informazioko nazioarteko arauak [Europar Batasunak onartutako Finantza Informazioko Nazioarteko Arauak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren kontabilitateko nazioarteko arauak aplikatzeari buruzko 2002ko uztailaren 19ko 1606/2002 (EE) Erregelamenduaren arabera] eta lurralde hauetan eskuarki onartutako kontabilitate printzipioak: Australia, Brasil, Kanada, Europar Batasuneko estatu kideak, Europako Esparru Ekonomikoko estatu kideak, Hong Kong (Txina), Japonia, Mexiko, Zeelanda Berria, Txinako Herri Errepublikak, Indiako Errepublikak, Koreako Errepublikak, Errusia, Singapur, Suitza, Erresuma Batua eta Amerikako Estatu Batuak;

33) «finantza kontabilitateko arau baimendua»: erakunde bati dagokionez, erakunde hori kokatuta dagoen jurisdikzioan baimendutako kontabilitate erakunde batek eskuarki baimendutako kontabilitate printzipioen multzo bat; definizio honen ondorioetarako, «baimendutako kontabilitate organismoa» izango da jurisdikzio batean finantza informazioaren ondorioetarako kontabilitate arauak emateko, ezartzeko edo onartzeko legezko aginpidea duen organismoa;

34) «nazioarteko erakundea»: gobernuen arteko erakunde oro, nazioz gaindiko erakundeak barne, edo erakunde horrek osorik parte hartutako erakunde edo tresna oro, baldin eta jarraian azaltzen diren irizpide guztiak betetzen baditu:

a) Nagusiki gobernuak osatzea;

b) Finkatuta dagoen jurisdikzioarekin egoitza akordioa edo funtsean antzekoa den akordioa benetan izatea, hala nola erakundeak jurisdikzio horretan dituen bulego edo establezimenduen pribilegioak eta immunitateak ematen dizkieten akordioak; eta

c) Legeriak edo hura arautzen duten estatutuek haren diru sarrerak partikular baten onurarako kontabilizatu ahal izatea eragozteaz;

35) «irabazteko xederik gabeko erakundea»: honako irizpide hauek betetzen dituen erakunde oro:

a) Egoitza duen lurraldean ezarrita egotea eta bertan jardutea:

i) Erljio, ongintza, zientzia, arte, kultura, kirol, hezkuntza helburuetarako edo antzeko beste batzuetarako bakarrik; edo

ii) Erakunde profesional gisa, merkataritza interesak sustatzeko elkarte gisa, merkataritza ganbera gisa, sindikatu erakunde gisa, nekazaritza edo baratze erakunde gisa, gizarte ongizatea sustatzen soilik diharduen herritar elkarte edo erakunde gisa;

b) Aurreko a) letran aipatutako jardueretatik datozen etekin gehienak salbuetsita egotea egoitza duten jurisdikzioan enpresa mozkinak zergapetzen dituen zergatik;

c) Bere errentaren edo aktiboen benetako onuradun edo titular diren akziodun edo bazkiderik ez izatea;

d) Ezin izatea erakundearen errentak edo aktiboak partikular bati edo ongintzazkoa ez den erakunde bati banatu, ez horien onurarako erabili, honako kasu hauetan izan ezik:

i) Erakundearen ongintza jarduera garatzeko;

ii) Emandako zerbitzuengatik edo ondasunak edo kapitala erabiltzeagatik kontraprestazio bat ordaintzeko; edo

iii) Erakundeak eskuratutako elementuen arrazoizko balioa litzatekeena ordaintzeko;

e) Entitatea amaitu, likidatu edo desegin ondoren, haren aktibo guztiak irabazteko xederik gabeko erakunde bati edo erakundeak egoitza duen jurisdikzioko edo haren edozein azpiatal politikoko administrazio publikoari (edozein entitate publiko barne) banatu edo itzuli behar zaizkio;

f) Sortu zeneko helburuekin zuzenean lotuta ez dagoen merkataritza edo enpresa jarduerarik ez egitea;

36) «kontroleko partaidetza»: erakunde baten funts propioetako partaidetza, non partaidetza horren titularrari erakundearen aktiboak, pasiboak, sarrerak, gastuak eta diru fluxuak bateratzea eskatzen zaion edo eskatuko zitzaion, integrazio globaleko metodoari jarraituz, finantza kontabilitateko arau onargarri baten arabera; entitate nagusi bat bere establezimendu iraunkorretan kontroleko partaidetzen titularra dela ulertzen da. Erakunde publikoaren definizioa betetzen duen funts subirano bat, artikuluko honen 16. puntuaren arabera, ez da kontroleko partaidetzen titularra;

37) «erakunde bateko partaidetza»: erakunde baten funts propioetako edozein partaidetza, baldin eta erakunde baten mozkinetan, kapitalean edo erreserbetan edo establezimendu iraunkor baten ondarean parte hartzeko eskubidea badakar;

38) «zergaldia»: talde multinazional bateko edo tamaina handiko talde nazional bateko azken jatorrizko erakundeak bere finantza egoera bateratuak egiteko kontabilitate aldia, edo, azken jatorrizko erakundeak finantza egoera bateratuak egiten ez baditu, urte naturala;

39) «atzerriko sozietate kontrolatuen zerga araubidea»: atzerriko erakunde bateko akziodun zuzen edo zeharkako bat edo establezimendu iraunkor bateko entitate nagusi bat atzerriko erakunde eratzaile horrek lortutako errenta guztietan edo zati batean duen partaidetzaren gaineko zergapetzeari lotuta dauden errenta onargarriak sartzeko arauaz bestelako arau fiskalen multzoa, errenta horiek akziodunari banatu zein ez;

40) «banaketa onargarriko zerga araubidea»: sozietateen enpresa mozkinak zergapetzen dituen zergaren araubidea;

i) Mozkinak zergapetzen dituen, baldin eta mozkin horiek akziodunen artean banatzen badira edo banatutzat jotzen badira, edo sozietateak bere jarduerari ez dagozkion gastu jakin batzuk egiten baditu;

ii) Zerga tasa gutxieneko zerga tasaren berdina edo handiagoa duena; eta

iii) indarrean zegoena 2021eko uztailaren 1ean edo data hori baino lehen;

41) «behar beste zergapetu gabeko mozkinen araua»: jurisdikzio bateko zuzenbide nazionalan aplikatzen diren arauen multzoa, betiere jurisdikzio horrek arau horiekin lotutako onurarik ematen ez badu, eta:

a) Kontseiluaren multinazionalen taldeentzako eta Batasuneko tamaina handiko talde nazionalentzako gutxieneko zergapetze maila globala bermatzeari buruzko 2022ko abenduaren 15eko 2022/2523 (EB) Zuzentarauan ezarritako arauen baliokideak badira, edo, hirugarren jurisdikzioei dagokionez, ELGAren ereduazko arauen baliokideak. Arau horien arabera, jurisdikzio batek talde multinazional baten zerga osagarritik egotz dakiokeen zatia biltzen du, eta zati horri dagokionez, ez da errentak sartzeko araua aplikatu talde hori osatzen duten eta zerga maila txikia duten erakunde txikiei dagokionez;

b) Zuzentzari horretan ezarritako arauarekin bat etorritik aplikatzen badira, edo, hirugarren jurisdikzioei dagokionez, ELGAren ereduazko arauarekin bat etorritik;

42) «errenta onargarriak sartzeko araua»: jurisdikzio bateko zuzenbide nazionalan sartzen diren arauen multzoa, betiere jurisdikzio horrek arau horiekin lotutako onurarik ematen ez badu, eta:

a) Kontseiluaren multinazionalen taldeentzako eta Batasuneko tamaina handiko talde nazionalentzako gutxieneko zergapetze maila globala bermatzeari buruzko 2022ko abenduaren 15eko 2022/2523 (EB) Zuzentarauan ezarritako arauen baliokideak badira, edo, hirugarren jurisdikzioei dagokionez, ELGAren ereduazko arauen baliokideak. Arau horien arabera, talde multinazional bateko edo tamaina handiko talde nazional bateko erakunde nagusiak zerga osagarritik egotz dakiokeen zatia kalkulatu eta ordainduko du, taldea osatzen duten eta zerga maila txikia duten erakundeei dagokionez;

b) Zuzentzari horretan ezarritako arauarekin bat etorritik aplikatzen badira, edo, hirugarren jurisdikzioei dagokionez, ELGAren ereduazko arauarekin bat etorritik;

43) «gutxieneko zerga tasa»: % 15;

44) «aktibo materialen kontabilitate balio garbia»: aktibo materialen hasierako eta amaierako balioen batez bestekoa, jasandako balio galera, agortzea edo narriadura kontuan hartu ondoren, finantza egoeretan jasotakoaren arabera.

III. TITULUA

Eremu subjektiboa eta lotura arauak

8. artikulua. Eremu subjektiboa eta lotura arauak.

1. Zerga Osagarriaren subjektu pasiboa izango da zerga aplikatzen den lurraldean kokatuta dagoen erakunde eratzalea, foru arau honen 10. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, hurrengo 2., 3., 4. eta 5. apartatuetan aurreikusitako baldintzetan, eta talde

multinazional bateko edo tamaina handiko talde nazional bateko kide bada, zergaldia hasi aurreko lau zergaldietatik bitan gutxienez, taldea osatzen duten erakunde guztien negozio zifraren zenbateko garbia, foru arau honen 9. artikuluan aipatutako erakunde baztertuen barne, 750 milioi eurokoa edo handiagoa denean, azken jatorrizko erakundearen finantza egoera bateratuen arabera.

Aurreko paragrafoan aipatutako zergaldi baten edo batzuen iraupena hamabi hilabetetik gorakoa edo beherakoa denean, paragrafo horretan aipatutako negozio zifraren zenbateko garbia proportzionalki doituko da zergaldi horietako bakoitzerako.

2. Zerga osagarri nazionalaren zergadunak izango dira, zergaldian lortutako errentengatik, aurreko apartatuan aipatutako taldeak osatzen dituzten erakundeak, baldin eta taldearen benetako zerga tasa, zerga aplikatzen den lurraldean, gutxieneko zerga tasa baino txikiagoa bada, foru arau honetan adierazitako baldintzetan.

3. Lehen mailako zerga osagarriaren zergadunak izango dira artikuluko honetako 1. apartatuan aipatutako talde multinazionala osatzen duten honako erakunde hauek, erakunde horiek lortutako errentei dagokienez egoitzarik ez duten edo beste jurisdikzioetan kokatuta dauden beste erakunde eratzaile batzuetan dituzten zuzeneko edo zeharkako partaidetzei egotz dakiekeen zatiagatik, baldin eta entitate horiek, jurisdikzio mailan, gutxieneko zerga tasa baino txikiagoa den benetako zerga tasa ordaindu badute, foru arau honetan adierazitako moduan:

i) Azken jatorrizko erakundea.

ii) Bitarteko jatorrizko erakunde bat, azken jatorrizko entitatea hirugarren jurisdikzio batean duena, edo baztertutako erakunde bat dena, estatu kide batean dagoena, salbu eta:

–Azken jatorrizko erakundea errenta onargarriak sartzeko arau baten arabera zerga osagarri baten mende badago eta hura aplikatzen badu, edo,

–Bitarteko beste jatorrizko erakunde batek, zuzenean edo zeharka, bitarteko jatorrizko erakundearen gaineko kontroleko partaidetza badu, eta zerga aplikatzen den lurraldean badago eta zerga osagarri baten mende badago, bere jurisdikzioan errentak sartzeko arau onargarri baten arabera.

iii) Partzialki parte hartutako jatorrizko erakunde bat, salbu eta partzialki parte hartutako jatorrizko beste erakunde batek, zuzenean edo zeharka, lehenengoarekiko partaidetza guztiak baditu eta bere jurisdikzioan errentak sartzeko arau onargarri baten arabera zerga osagarri baten mende badago.

4. Bigarren mailako zerga osagarriaren zergadunak honako hauek izango dira: artikuluko honetako 1. apartatuan aipatzen den talde multinazionala osatzen duten erakundeak, zerga maila txikia duten, egoitzarik ez duten edo beste jurisdikzio batzuetan kokatuta dauden beste erakunde batzuei egotz dakiekeen zerga osagarriaren zatiagatik, eta azken jatorrizko erakundea errentak sartzeko arau onargarriak aplikatzen ez duen jurisdikzio batean edo zerga maila baxua duen jurisdikzio batean dagoenean, eta azken jatorrizko erakundea erakunde baztertua denean, foru arau honetan adierazitako baldintzetan.

Era berean, bigarren mailako zerga osagarriaren zergadunak izango dira artikuluko honetako 1. paragrafoan aipatzen den talde multinazional bat osatzen duten erakundeak, zerga maila txikia duten beste erakunde eratzaile batzuei egotz dakiekeen zerga osagarriaren zatiagatik, baldin eta haien azken jatorrizko erakundea errentak

sartzeko araua eta behar beste zergapetu gabeko mozkinen araua ez aplikatzea erabaki duen estatu kide batean badago, 2022/2523 (EB) Zuzentarauaren 50. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Apartatu honetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko inbertsio erakundeak diren erakunde eratzaileri.

5. Aurreko guztia gorabehera, artikuluko 1. apartatuan aurreikusitako Zerga Osagarriaren zergadunaren ordezkotzat hartuko da, eta aitortpena edo aitortpenak aurkeztu beharko ditu, eta zerga zorra edo zorrak ordaindu, foru arau honen 52. eta 53. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, honako erakunde hauetako bat, talde multinazional edo tamaina handiko nazional bat osatzen duena, honako lehentasun ordena honen arabera:

i) Azken jatorrizko erakundea, zerga aplikatzen den lurraldean dagoenean, entitate baztertutzat jotzen ez den neurrian, edo, halakorik ezean,

ii) Jatorrizko erakundea, zerga aplikatzen den lurraldean kokatua, baldin eta haren aktibo materialen kontabilitate balio garbia, foru arau honen 7. artikuluko 44. puntuan definitutakoa, zergaldian, zerga aplikatzen den lurraldean dauden taldeko jatorrizko erakundearen artean handiena bada, erakunde baztertutzat jotzen ez den neurrian edo, halakorik ezean,

iii) Taldeko erakunde eratzailera, zerga aplikatzen den lurraldean kokatua, baldin eta haren aktibo materialen kontabilitate balio garbia, foru arau honen 7. artikuluko 44. puntuan definitutakoa, zergaldian, zerga aplikatzen den lurraldean dauden taldeko erakunde eratzaileren artean handiena bada, erakunde baztertutzat jotzen ez den neurrian.

Zehazki, egiaztatzeko jarduketak zergadunaren ordezkotzat hartu den erakunde eratzailerekin egingo dira, erregelamendu bidez garatutako baldintzetan.

6. Talde multinazionala edo tamaina handiko talde nazionala osatzen duten erakundeek, zergaduntzat hartzen direnek eta artikuluko honetan xedatutakoaren arabera ordaintzera behartuta ez daudenek, erantzukizun solidarioa izango dute talde hori osatzen duten erakundearen zerga zor guztien ordainketan.

9. artikulua. Baztertutako erakundeak.

1. Honako hauek baztertutako erakundeak izango dira eta ez zaie foru arau hau aplikatuko:

a) Erakunde publiko bat, nazioarteko erakunde bat, irabazteko xederik gabeko erakunde bat, pentsio funts bat, azken jatorrizko erakundea den inbertsio funts bat edo azken jatorrizko erakundea den higiezinetakoa inbertsio tresna bat;

b) Erakunde bat, gutxienez bere balioaren % 95 a) letran aipatutako erakunde baten edo batzuen jabetzakoa denean, zuzenean edo baztertutako erakunde baten edo batzuen bidez, pentsio zerbitzuetako erakundeak izan ezik, eta:

i) Aktiboak edukitzeko edo funtsak inbertitzeko eskusiboki edo ia eskusiboki badihardu, a) letran aipatutako erakundearen edo erakundearen mesedetan; edo

ii) a) letran aipatutako erakundeak edo erakundeek egindakoen osagarri diren jarduerak soilik egiten baditu;

c) Erakunde bat, bere funts propioak, gutxienez % 85, a) letran aipatutako erakunde batenak edo batzuenak direnean, zuzenean edo baztertutako erakunde baten edo batzuen bidez, pentsio zerbitzuetako erakundeak izan ezik, betiere haren mozkin guztiak funtsean dibidenduetatik edo irabazi edo galeretatik edo irabazi edo galera onargarrien kalkulutik kanpo dauden kapital galeretatik badatoz, foru arau honen 12. artikuluko 2. apartatuko b) eta c) letretan xedatutakoarekin bat etorritik.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoaren salbuespen gisa, erakunde eratzaile aitortzaileak aukera izango du, foru arau honen 51. artikuluko 1. apartatuarekin bat etorritik, artikuluko 1. apartatuko b) eta c) letretan jasotako edozein erakunde erakunde baztertutatzat ez hartzeko.

10. artikulua. Erakunde eratzaileen kokapena.

Foru arau honen ondorioetarako:

1. Erakunde bat, erakunde gardena ez dena, bere burua zerga ondorioetarako egoiliartzat jotzen duen jurisdikzioan kokatuta dago, bere zuzendaritzaren egoitza, sortzeko tokia edo antzeko irizpide bat kontuan hartuta.

Aurreko paragrafoaren arabera erakunde eratzailea, erakunde gardena ez dena, zein jurisdikzioan kokatuta dagoen zehazterik ez dagoenean, erakundea sortu den jurisdikzioan kokatuta dagoela ulertuko da.

2. Erakunde garden bat egoitzarik gabekotzat joko da, non eta ez den talde multinazional bateko edo tamaina handiko talde nazional bateko azken jatorrizko erakundea edo ez dagoen behartuta errentak sartzeko arau bat aplikatzera foru arau honen arabera; kasu horretan, erakunde gardena sortu den jurisdikzioan kokatuta dagoela ulertuko da.

3. Foru arau honen 7. artikuluko 19. puntuko a) letran aipatzen den establezimendu iraunkorra establezimendu iraunkor gisa tratatzen den eta aplikatu beharreko hitzarmen fiskalaren arabera errentaren gaineko zerga ordaindu beharko duen jurisdikzioan kokatuta dagoela ulertuko da.

Foru arau honetako 7. artikuluko 19. puntuko b) letran aipatzen den establezimendu iraunkorra letra horretan xedatutakoaren arabera zergak ordaindu behar dituen jurisdikzioan kokatuta dagoela ulertuko da.

Zerga geroratuengatiko gastu edo diru-sarrera kalkulatzeko aplikatutako zerga tasa gutxieneko zerga tasa baino handiagoa denean, galdu-irabazien kontuan agertzen den zerga geroratuarengatiko gastua edo diru sarrera, zerga estaliei dagokiena, berriro kalkulatu beharko da gutxieneko zerga tasaren arabera.

3. Zerga geroratuengatiko doikuntzaren zenbateko osoari honako hauek gehituko zaizkio:

a) Baimendu gabeko sortzapen bati edo erreklamatu gabeko sortzapen bati dagozkion zenbatekoak, zergaldian zehar ordaindu direnak.

b) Berreskuratutako zerga geroratuarengatiko pasiboaren zenbatekoa, aurreko zergaldi batean zehaztutakoa, zergaldian zehar ordaindu dena.

4. Zergaldian, galera batekin bat datorren zerga geroratuarengatiko aktiboa ez bada erregistratu egoera-orri finantzarioetan, ez baitira bete kontabilizatzeko irizpideak, zerga geroratuengatiko doikuntzaren zenbateko osotik kendu egingo da kontabilizatzeko irizpideak betez gero zenbateko horretatik kenduko zitekeen diru kopurua.

5. Zerga geroratuengatiko doikuntzaren zenbateko osoak ez ditu barnean hartuko:

a) Zerga geroratuarengatiko gastua edo diru sarrera, Foru Arau honetan xedatutakoaren arabera onargarriak diren irabazi edo galeren kalkulutik baztertutako partidekin bat datorrena.

b) Zerga geroratuarengatiko gastua edo diru sarrera, baimendu gabeko sortzapenekin eta erreklamatu gabeko sortzapenekin bat datorrena.

c) Zerga geroratuarengatiko aktibo bat kontabilitatean jasotzeko edo baloratzeko doikuntza baten emaitzak.

d) Zerga geroratuarengatiko gastu edo diru-sarreraren aldakuntza, zerga tasa nazional aplikagarrian izandako aldaketaren ondoriozkoa.

e) Zerga geroratuarengatiko gastu edo diru-sarrera, kreditu fiskalak sortzearekin eta erabiltzearekin bat datorrena.

6. Entitate eratzaile baten galera onargarri bati dagokion zerga geroratuarengatiko aktibo bat zergaldian gutxieneko zerga tasa baino txikiagoa den tasa baten arabera erregistratu bada, aktibo hori zergaldi berean berriro kalkulatu ahal izango da gutxieneko zerga tasaren arabera, baldin eta zergaduna gai bada zerga geroratuarengatiko aktiboa galera onargarri batekin bat datorrela egiaztatzeko.

Zerga geroratuarengatiko aktibo bat –aurreko apartatuari jarraikiz– igotzen bada, zerga geroratuengatiko doikuntzaren zenbateko osoak behera egingo du ondorioz.

7. Zerga geroratuarengatiko pasibo bat itzuli ez bada eta dagokion zenbatekoa hurrengo bost zergaldietan ordaindu ez bada, pasibo hori berreskuratu beharko da entitate eratzaile baten zerga geroratuengatiko doikuntzaren zenbateko osoan aintzat hartu den heinean, baldin eta hurrengo apartatuan xedatutakoa aplikatu behar ez bada.

Hasitako zergaldian berreskuratutako zerga geroratuarengatiko pasiboaren zenbatekoak murriztu egingo ditu zerga estaliak hasitako zergaldiaren aurreko bosgarren zergaldian, eta benetako zerga tasa, baita azken zergaldi horri dagokion zerga osagarria ere berriz kalkulatu da, Foru Arau honen 32. artikularen 1. apartatuan xedatutakoaren arabera. Hasitako zergaldian berreskuratutako zerga geroratuarengatiko pasiboa bat etorriko da zerga geroratuarengatiko pasiboaren

igoeraren zenbatekoarekin, hasitako zergaldiaren aurreko bosgarren zergaldiko zerga geroratuengatiko doikuntzaren zenbateko osoan sartu zenarekin, eta hasitako zergaldiaren azken eguna bukatu arte itzuli ez denarekin.

8. Ez da aplikagarria izango aurreko 7. apartatuan aurreikusitakoa, zerga geroratuarengatiko pasibo horiek zergaldian sortu diren hurrengoak direlako, eta, beraz, horiek berreskuratzeko beharrik ez dagoelako, hurrengo bost urteetan itzultzen edo ordaintzen ez badira ere. Berreskuratu behar ez den zerga geroratuarengatiko pasiboa zergaldian sortutako zergagatiko gastuaren zenbatekoa izango da, honako partida hauei lotuta dagoen zerga geroratuarengatiko pasiboaren aldakuntzekin bat datorrena:

- a) Balio zuzenketak, aktibo materialen kostuak berreskuratzea dela eta.
- b) Aktibo materialetan inbertsio esanguratsua egitea dakarren lizentzia baten, kontzesio baten edo gobernu batek ondasun higiezinak erabiltzeko edo baliabide naturalak ustiatzeko eskaintzen duen mekanismo baliokide baten kostua.
- c) Ikerketa eta garapen gastuak.
- d) Desegite-, erretiratze- edo birgaitze-kostuak.
- e) Gauzatu gabeko irabazi garbiei arrazoizko balioaren irizpidea aplikatzearen ondoriozko balio aldakuntzak.
- f) Atzerriko dirutako kanbio diferentzien ondoriozko irabazi garbiak.
- g) Aseguruen hornidura teknikoak eta aseguru polizak eskuratzeko kostu geroratuak.
- h) Entitate eratzaillea dagoen jurisdikzio berean kokaturiko ondasun materialen eskualdaketaen ondoriozko errenta positiboak, jurisdikzio berean ondasun materialetan berrinbertitzen direnak.
- i) A) letratik h) letrara bitartean zerrendatutako partidak direla eta kontabilitate irizpideetan izandako aldaketen ondorioz sortutako zenbateko gehigarriak.

21. artikulua. Galera onargarrien hautaketa.

1. Foru Arauaren 20. artikuluan xedatutakoa gorabehera, entitate eratzaille aitortzaileak jurisdikzio batean onargarriak diren galerak hautatzeko aukera izango du. Horiek horrela, aukera erabili den jurisdikzioan galera onargarri garbia dagoen zergaldi bakoitzean, zerga geroratuarengatiko aktibo bat kalkulatu da, galera onargarri horri eratziki dakioketena; horren zenbatekoa kalkulatzeko, jurisdikzioko galera onargarri garbia –zergaldian lortutakoa– gutxieneko zerga tasarekin biderkatuko da.

Apartatu honetan aurreikusitako aukera ez da aplikagarria izango Foru Arau honen 44. artikuluan ezarritako moduan onargarria den banaketako zerga-sistema bat duten jurisdikzioen kasuan.

2. Galera onargarri garbi bati dagokion zerga geroratuarengatiko aktiboa, aurreko apartatuari jarraikiz zehaztutakoa, ondorengo edozein zergalditan aplikatuko da (baldin eta zergaldi horretan jurisdikzioak irabazi onargarri garbiak lortzen baditu) galera onargarri garbiak gutxieneko zerga tasarekin biderkatuz lortutako zenbatekoan edo, txikiagoa izanez gero, aplikatu gabe dagoen galera onargarri garbiari eratzikitze zerga geroratuarengatiko aktiboaren zenbatekoan.

3. Galera onargarri garbi bati dagokion zerga geroratuarengatiko aktiboari, aurreko 1. apartatuaren arabera zehaztutakoari, zergaldian aplikatutako zenbatekoa kenduko zaio, eta geratzen den saldoa, halakorik egonez gero, hurrengo zergaldietan aplikatuko da.

4. Galera onargarriak hautatzeko aukera baliogabetzen bada, zerga geroratuarengatiko aktiboaren saldoa, aplikatu gabea, galera onargarri garbi bati dagokiona, artikulua honen 1. apartatuari jarraikiz zehaztu dena, zerora murriztuko da, galera onargarrien hautaketa jada aplikagarria izango ez den lehenengo zergaldiaren lehenengo egunetik aurrerako ondorioekin.

5. Galera onargarriak hautatzeko aukera talde multinazionalak edo talde nazional handiak aurkezten duen lehenengo aitorten informatiboan (zerga osagarriari buruzkoan) baino ezingo da erabili, hau da, Foru Arau honen 49. artikulua aipatzen duen aitorpenean, non aipatzen baita aukera erabiltzeko jurisdikzioa.

6. Talde multinazional baten edo talde nazional handi baten azken matrize entitatea den entitate garden batek galera onargarriak hautatzeko aukera hartzen badu, artikulua honen arabera, galera onargarri garbi bati dagokion zerga geroratuarengatiko aktiboa entitate gardenaren galera onargarri garbiaren arabera kalkulatu da, Foru Arau honen 42. artikulua 3. apartatuari jarraikiz egindako murrizketaren ostean.

22. artikulua. Entitate eratzaille zehatzek jasaten dituzten zerga estalien berariazko eratzikipena.

1. Entitate eratzaille baten egoera-orri finantzarioetan sartu diren zerga estaliak, establezimendu iraunkor baten irabazi edo galera onargarriekin bat datozenak, azken horri eratzikiko zaizkio.

2. Zerga ikuspegitik gardena den entitatea den entitate eratzaille baten egoera-orri finantzarioetan sartutako zerga estaliak, entitate eratzaillearen partaidetzen titularrei eratzikitako irabazi edo galera onargarriekin bat datozenak, Foru Arau honen 15. artikuluko 4. apartatuaren arabera, titular horiei eratzikiko zaizkie.

3. Atzerriko sozietate kontrolatuen zerga araubide bat bete behar duen entitate eratzaille batean zuzeneko edo zeharkako partaidetza bat duten titularren egoera-orri finantzarioetan sartutako zerga estaliak entitate eratzaille horri eratzikiko zaizkio, atzerriko sozietate kontrolatuen araubidearen arabera zergapetu beharreko mozkinen dagokien zatian.

4. Entitate hibridoa edo alderantzizko entitate hibridoa den entitate eratzaillearen partaidetzak dituen titularren egoera-orri finantzarioetan sartu diren zerga estaliak, entitate eratzaille horren irabazi onargarriei dagozkienak, entitate hibridoari edo, hala badagokio, alderantzizko entitate hibridoari eratzikiko zaizkio.

Entitate hibridotzat joko da partaidetzen titularrak egoitza duen jurisdikzioan zerga ikuspegitik gardentzat hartzen den entitatea, bere egoitza dagoen jurisdikzioan horrelako izaerarik ez duena.

Foru Arau honen 7. artikulua 18. apartatuko b) letran xedatutakoaren arabera, alderantzizko entitate hibridotzat joko da entitatearen egoitza dagoen jurisdikzioan zerga ikuspegitik gardentzat hartzen den entitatea, bere partaidetzen titularrak egoitza duen jurisdikzioan horrelako izaerarik ez duena.

5. Entitate eratzailleek egindako banaketen gaineko zerga estaliak, entitate eratzaillearen zuzeneko partaidetzak dituzten titularren egoera-orri finantzarioetan sartu direnak, banaketak zergaldian egin dituzten entitate eratzaillei eratzikiko zaizkie.

6. Errenta pasiboekin bat datozen zerga estaliak eratziki zaizkien entitate eratzailleek, artikuluko honen 3. eta 4. apartatuen arabera, zerga estali horiek errenta pasibo horiei lotutako eratzikitako zerga estalien zenbatekoaren arabera doitutako zerga estalietan sartuko dituzte.

Aurrekoa gorabehera, aurreko apartatuak aipatzen dituen entitate eratzailleek jurisdikzioari dagokion zerga osagarriaren tasa entitate eratzaillearen errenta pasiboekin biderkatuz lortutako zenbatekoa sartuko dute beren doitutako zerga estalietan, errenta horiei atzerriko sozietate kontrolatuen zerga araubide bat edo gardentasun fiskalaren arau bat aplikatuta, emaitza aurreko apartatuari jarraikiz kalkulaturako zenbatekoa baino gutxiago denean. Apartatu honen ondorioetarako, jurisdikzioari dagokion zerga osagarriaren tasa entitate eratzaillearen partaidetzak dituen titularrari –aipatutako errenta pasiboak direla eta– eratziki dakizkiokeen zerga estaliak aintzat hartu gabe kalkulatu da.

Entitate eratzaillearen partaidetzak dituen titularraren zerga estaliak, apartatu hau aplikatu ondoren geratzen diren errenta pasiboek dagozkienak, ez dira eratzikiko 3. eta 4. apartatuei jarraikiz.

Apartatu honen ondorioetarako, errenta pasibotzat hartuko dira ondoko errentak, irabazi onargarrietan sartutakoak, entitate eratzaillearen partaidetzak dituen titularrari zerga ezarri zaion heinean, atzerriko sozietate kontrolatuen zerga araubide bat aplikatu zaiolako edota entitate hibrido baten funts propioetan partaidetza bat duelako:

- a) Dibidenduak edo antzeko izaera duten beste diru sarrera edo errenta batzuk;
- b) Interesak edo antzeko izaera duten beste diru sarrera edo errenta batzuk;
- c) Errentamenduak;
- d) Kanonak;
- e) Kapitalizazio eta aseguru eragiketen ondoriozko errentak; edo
- f) [\(1\)](#) a) - e) bitarteko letretan azaltzen diren errentak sortzen dituzten ondasun aktiboen irabazi garbiak.

7. Establezimendu iraunkor baten irabazi onargarriak entitate nagusiaren irabazi onargarritzat hartzen badira, Foru Arau honen 14. artikuluko 5. apartatuaren arabera, establezimendu iraunkorra dagoen jurisdikzioari dagozkion zerga estaliak, irabazi horiei lotuta daudenak, entitate nagusiaren zerga estalitzat joko dira irabazi horiek entitate nagusiaren jurisdikzioan errenta arruntari aplikatutako zerga tasa altuenarekin biderkatuz lortutako emaitza gainditzen ez duen zenbatekoan.

23. artikulua. Aitorpenaren osteko doikuntzak eta aldaketak zerga tasetan.

1. Entitate eratzaille batek bere egoera-orri finantzarioetan zuzenketa bat egiten duenean eta ondorioz aurreko zergaldi bati dagozkion zerga estaliak igotzen direnean, zuzenketa egiten den zergaldiko zerga estalietan egin beharreko doikuntzat joko da.

Zuzenketaren ondorioz entitate eratzaillearen doitutako zerga estalietan –aurreko zergaldi bati dagozkionetan– sartuta dauden zerga estaliak jaisten badira, berriro

kalkulatuko dira zergaldi horri dagozkion zerga tasa efektiboa eta zerga osagarria, Foru Arau honen 32. artikulua 1. apartatuaren arabera. Berrir kalkulatut behar izanez gero, doitutako zerga estalietatik zergaldian izandako zerga estalien murrizketari dagozkion zenbatekoa kenduko da. Ondorioz, doitu egingo dira hasitako zergaldiko eta aurreko zergaldietako irabazi onargarriak.

Aurreko apartatua xedatutakoa gorabehera, entitate eratzaille aitortzaileak urtean behin aukera izango du, Foru Arau honen 51. artikulua 2. apartatuarekin bat, zerga estalien murrizketa ez-esanguratsu bat zerga estalien doikuntzat hartzeko, zuzenketa egiten den zergaldian. Doitutako zerga estalien murrizketa bat zerga estalien murrizketa ez-esanguratsutzat hartuko da, baldin eta horren zenbateko osoa milioi bat euro baino txikiagoa bada, jurisdikzio eta zergaldi batean.

2. Zerga tasa nazional aplikagarria gutxieneko zerga tasaren azpitik murriztearen ondoriozko zerga geroratuarengatik gastua entitate eratzaillearen zerga gastuaren doikuntzat, hain zuzen, Foru Arau honen 19. artikulua ondorioetarako aintzat hartu diren eta aurreko zergaldi bati dagozkion zerga estalien arabera egindako doikuntzat, hartuko da.

3. Zerga geroratuarengatik gastua gutxieneko zerga tasa baino txikiagoa den tasa baten arabera kalkulatu bada eta zerga tasa aplikagarria gero igotzen bada, igoera horren ondoriozko zerga geroratuarengatik gastuaren zenbatekoa, ordaintzeko orduan, entitate eratzailleak zor duen zenbatekoaren doikuntzat hartuko da, hain zuzen, Foru Arau honen 19. artikulua ondorioetarako aintzat hartu diren eta aurreko zergaldi bati dagozkion zerga estaliak direla eta egiten den doikuntzat.

Aurreko apartatuak aipatzen duen doikuntzaren zenbatekoa ezingo da izan gutxieneko tasaren arabera berrir kalkulatutako zerga geroratuarengatik gastuaren zenbatekoa baino handiagoa.

4. Entitate eratzaille baten zerga korrontearen zenbatekoa, bere doitutako zerga estalietan sartu dena, zergaldi batean milioi bat euro baino gehiago bada, eta zenbateko hori ez bada benetan ordaindu zergaldi hori bukatu ondorengo hiru urteetan, berrir kalkulatuko dira, Foru Arau honen 32. artikulua 1. apartatuaren arabera, ordaindu gabeko zenbatekoa zerga estalitza hartua zen zergaldiari dagozkion zerga tasa efektiboa eta zerga osagarria. Ordaindu ez den zenbatekoa doitutako zerga estalietatik kanpo utziko da.

VI. TITULUA

Zerga tasa efektiboa

24. artikulua. Zerga tasa efektiboa zehaztea.

1. Talde multinazional baten edo talde nazional handi baten zerga tasa efektiboa zergaldi bakoitzeko eta irabazi onargarri garbiak sortu diren jurisdikzio bakoitzeko kalkulatu da.

Jurisdikzio zerga tasa efektiboa honako eragiketa honen emaitza izango da: doitutako zerga estaliak zati jurisdikzio horretan egoitza duten entitate eratzailleen irabazi onargarri garbiak, ehunekotan adierazita, lau dezimalek biribilduta.

2. Entitate eratzaileen doitutako zerga estalitzat hartuko da jurisdikzioan egoitza duten entitate eratzaile guztien doitutako zerga estalien batuketa, zerga horiek Foru Arau honetan xedatutakoaren arabera zehaztuta.

3. Zergaldi batean jurisdikzioan egoitza duten entitate eratzaileen irabazi edo galera onargarri garbia entitate eratzaile horien irabazi onargarrien eta galera onargarrien arteko diferentzia izango da.

Entitate eratzaileen irabazi onargarriak jurisdikzioan egoitza duten entitate eratzaile guztien irabazi onargarrien batuketaren emaitza positiboa izango da, irabazi horiek Foru Arau honetan xedatutakoaren arabera zehaztuta.

Entitate eratzaileen galera onargarriak jurisdikzioan egoitza duten entitate eratzaile guztien galera onargarrien batuketaren emaitza positiboa izango da, irabazi horiek Foru Arau honetan xedatutakoaren arabera zehaztuta.

4. Inbertsio entitateak diren entitate eratzaileen doitutako zerga estaliak eta irabazi edo galera onargarriak ez dira aintzat hartuko artikuluan honen 1. eta 2. apartatuetan aipatzen diren kalkuluetan, hain zuzen, zerga tasa efektiboaren kalkuluan eta irabazi onargarri garbien kalkuluan.

5. Egoitzarik gabeko entitate eratzaile bakoitzaren zerga tasa efektiboa, zergaldi bakoitzerako, banan-banan kalkulatu da, gainerako entitate eratzaile guztiei dagokien zerga tasa efektiboa kontuan izan gabe.

VII. TITULUA

Zerga zorra

I. KAPITULUA

Karga tasa

25. artikulua. Zerga Osagarriaren karga tasa.

Zerga Osagarria kalkulatzeko, Foru Arau honen 8. artikuluen 2., 3. eta 4. apartatuetan aurreikusitako zergadunei aplikatu behar zaizen karga tasa, zergaldiari eta jurisdikzio bakoitzari dagokiona, gutxieneko zerga tasaren (Foru Arau honen 7. artikuluen 43. apartatuak aipatzen duenaren) eta jurisdikzio bakoitzeko zerga tasa efektiboaren arteko diferentzia positiboa izango da; azken tasa hori Foru Arau honen 24. artikuluan xedatutakoaren arabera zehaztuko da eta ehunekotan adieraziko da.

II. KAPITULUA

Zerga Osagarriaren kuota

26. artikulua. Zerga Osagarriaren kuota.

1. Zerga Osagarria aplikatzen duen lurraldean kokatutako entitate eratzaile bati zergaldian dagokion kuota –Zerga Osagarriarena– zerga osagarri nazionalaren kuotari zerga osagarri primarioaren kuota eta zerga osagarri sekundarioaren kuota gehituz lortutakoa izango da.

Zerga osagarri nazionalaren kuota Foru Arau honen 8. artikulua 2. apartatua aurreikusitako zergadunei dagokien zerga osagarria izango da. Zenbatekoari dagokionez, titulu honen III. kapituluaren araututa dagoen zerga osagarri nazionala arau honen 5. apartatuaren arabera aplikatuz lortutako emaitza izango da.

Zerga osagarri primarioaren kuota Foru Arau honen 8. artikulua 3. apartatua aurreikusitako zergadunei dagokien zerga osagarria izango da. Zenbatekoari dagokionez, titulu honen IV. kapituluaren ezarritako araua, errentak sartzeari buruzkoa, arau honen 5. apartatuaren arabera aplikatuz lortutako emaitza izango da.

Zerga osagarri sekundarioaren kuota Foru Arau honen 8. artikulua 4. apartatua aurreikusitako zergadunei eratzitako izango da, titulu honen V. kapituluaren xedatutakoaren arabera.

2. Talde multinazional edo talde nazional handi bateko entitate eratzailerak kokatuta dauden jurisdikziozko zerga tasa efektiboa zergaldian gutxieneko zerga tasa baino txikiagoa bada, Foru Arau honen 8. artikulua 2. eta 3. apartatuetan aurreikusitako zergadunek jurisdikzio horri dagokion zerga osagarria kalkulatu dute. Era berean, irabazi onargarriak, irabazi horiek jurisdikzio horretan onargarriak diren irabazi onargarri garbien kalkuluan aintzat hartuak, dituzten entitate eratzaileretako bakoitzari dagokion zerga osagarria zehaztu dute.

Apartatu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, kontuan izango dira titulu honen III., IV., V. eta VI. kapituluaren agertzen diren arauak.

3. Jurisdikzio bateko zerga osagarriaren karga tasa, zergaldian, gutxieneko zerga tasaren eta Foru Arau honen 24. artikuluan xedatutakoaren arabera kalkulatuako zerga tasa efektiboaren arteko diferentzia positiboa izango da, puntu portzentualetan.

4. Zergapetze maila baxua duen jurisdikzio bateko zerga osagarria, zergaldian, honela lortutako zenbateko positiboa izango da, hala badagokio: jurisdikzio horri dagokion karga tasa, aurreko apartatua aipatutakoa, bider jurisdikzioaren zerga oinarria, Foru Arau honen 17. artikulua 1. apartatua xedatutakoaren arabera zehaztutakoa.

Azkenik, jurisdikzio batean zergaldian aplikatzen den zerga osagarriari, kasua bada, galdagarria den zerga osagarri gehigarria gehituko zaio eta zergapetze maila baxua duten beste jurisdikzioetan eskatuko litzatekeen zerga osagarri nazional onargarriaren zenbatekoa kenduko zaio.

Aurreko apartatua xedatutakoaren ondorioetarako, honako hau azaltzen da:

– Zerga osagarri gehigarria: zergaldian, Foru Arau honen 32. artikulua 2. apartatua arabera, kalkulatuako zergaren zenbatekoa.

– Zerga osagarri nazional onargarria: beste jurisdikzio bateko zerga osagarri nazional onargarriaren zenbatekoa, zergaldiari dagokiona, Foru Arau honen 36. artikuluan aurreikusitako baldintzak bete ezean, baldin eta jurisdikzio horretan dauden entitate eratzaileren kontabilitate emaitza Foru Arau honen 11.1 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, onar daitezkeen finantza kontabilitateko beste arau bati jarraikiz edo baimenduta dagoen eta lehiaren distorsio nabarmen oro saihesteko behar bezala egokitu den finantza kontabilitateko arau bati jarraikiz zehaztu bada.

5. Entitate eratzailer baten zerga osagarria, zergaldian, honako eragiketa honen emaitza izango da: entitatea dagoen jurisdikziozko zerga osagarria bider entitate eratzaileraren

irabazi onargarrien eta jurisdikzioan egoitza duten entitate eratzaile guztien irabazi onargarri bateratuen arteko proportzioa.

Entitate eratzailearen irabazi onargarriak, jurisdikzio bati eta zergaldiari dagozkienak, Foru Arau honetan xedatutakoaren arabera zehaztu direnak izango dira.

Jurisdikzioko entitate eratzaile guztien irabazi onargarri bateratuak, zergaldiari dagozkienak, zergaldian jurisdikzio horretan egoitza duten entitate eratzaile guztien irabazi onargarrien batuketa izango dira.

6. Zergapetze maila baxua duen jurisdikzio bateko zerga osagarria bat badator Foru Arau honen 32. artikuluaen 1. apartatuaren arabera jurisdikzio baterako egindako kalkuluarekin eta jurisdikzio horretan, kalkulu berria egin den zergaldian irabazi onargarri garbiak erregistratzen ez badira, zerga osagarri gehigarria aipatu jurisdikzioan dagoen entitate eratzaile bakoitzari eratzikiko zaio, artikulua honen 4. apartatuan ezarritako formula erabiliz, kontuan hartuta entitate eratzaileek kalkulu berriak eragiten dien zergaldietan izan dituzten irabazi onargarriak, Foru Arau honen 32. artikuluko 1. apartatuaren arabera.

7. Egoitzarik gabeko entitate eratzaile bakoitzaren zerga osagarria, zergaldi bakoitzeko, banan-banan kalkulatu da, gainerako entitate eratzaile guztiei dagokien zerga osagarria kontuan izan gabe.

8. Foru Arau honek arautzen duen Zerga Osagarriaren kuota, zergaldiari dagokiona, zerga aplikatzen den lurraldeko zerga osagarriaren zenbatekoari, zergaldian, dela zerga osagarri nazionalaren modalitatean, dela zerga osagarri primarioaren modalitatean, artikulua honen 4. apartatuaren arabera zehaztutakoari, zerga aplikatu behar duen eskualdeari Foru Arau honen 31. artikuluaen 1. apartatuan xedatutakoa betez esleितutako zerga osagarri sekundarioaren zenbatekoa gehituz lortutako emaitza izango da.

9. Titulu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, Foru Arau honen 52. artikulua borondatez ordaintzeko ezartzen duen epearen azken egunean edo –lehenagokoa bada– ordainketa datan indarrean dagoen truke tasa erabiliko da.

III. KAPITULUA.

Zerga osagarri nazionala

27. artikulua. Zerga osagarri nazionala.

1. Foru Arau honen 8. artikuluaen 2. apartatuak aipatzen dituen zergadunak kapitulu honetan azaltzen den zerga osagarri nazionalari lotuta egongo dira.

Zerga osagarri nazionala Foru Arau honen 26. artikuluan xedatutakoari jarraikiz zehaztuko da, Foru Arau honen X. tituluak entitate jakin batzuetarako aurreikusten dituen espezialitateak alde batera utzi gabe, horiek dagozkien berariazko arauetan xedatutakoa betez zehaztuko baitira. Ondorio horietarako, zerga osagarri nazionalen, "jurisdikzio" terminoak "zerga aplikatzen duen lurraldea" esan nahi du.

2. Entitate eratzaileen kontabilitate emaitza, zerga osagarri nazionala kalkulatzeko, Foru Arau honen 11. artikuluaen 1. apartatuan xedatutakoari jarraikiz zehaztuko da. Entitate eratzailearen kontabilitate emaitza lehenago azaldutakoari jarraikiz eta arrazoizko moduan zehaztea ezinezkoa bada, entitatearen kontabilitate emaitza, zergaldiari

dagokiona, Espainian oro har onartuta dauden eta entitate eratzailearen finantza kontuen lanketan erabili diren kontabilitate arauak jarraikiz zehaztuko da.

Kasu horretan, milioi bat eurotik gorako diferentzia iraunkorrak, diru-sarreraren, gastuen edo transakzioen partidei printzipio edo arau berezi bat aplikatzearen ondorioz sortutakoak, horrelako printzipioa edo araua ez bada azken matrize entitatearen egoera-orri finantzario bateratuak egiteko erabilitako finantza araudia, doitu egingo dira, egoera-orri finantzario bateratuen lanketan erabilitako kontabilitate araudiak partida horretarako eskatzen duen tratamenduarekin bateratzeko.

Nolanahi ere, entitate eratzailearen zergaldia ez badator bat azken matrize entitatearen kontabilitate aldiarekin, egoera-orri finantzario bateratuak egiteko kontuan hartutakoarekin, Foru Arau honen 11. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

3. Zerga tasa efektiboa kalkulatzeko, Foru Arau honen 24. artikularen arabera, Foru Arau honen 8. artikularen 2. apartatuak aipatzen dituen zergadunen kasuan, ez dira aintzat hartuko:

a) Atzerriko sozietate kontrolatuen zerga araubide bat bete behar duen entitate eratzaile batean zuzeneko edo zeharkako partaidetza bat duten titularren zerga estaliak, Foru Arau honen 22. artikularen 3. apartatuaren arabera, Espainian kokatuta dagoen entitate eratzaile horri eratziki zaizkionak.

b) Entitate nagusiaren zerga estaliak, Foru Arau honen 22. artikularen 1. apartatuaren arabera, Espainian kokatuta dagoen establezimendu iraunkor bati eratziki zaizkionak.

c) Entitate hibridoa den entitate eratzaile baten partaidetzen titularren zerga estaliak, Foru Arau honen 22. artikuluko 4. apartatuaren arabera, zerga aplikatzeko lurraldean kokatuta dagoen entitate hibridoari eratziki zaizkionak.

d) Entitate eratzaile baten partaidetzen titularren zerga estaliak, Foru Arau honen 22. artikuluko 5. apartatuaren arabera, zerga aplikatzeko lurraldean kokatuta dagoen eta banaketak egin dituen entitate eratzaileari eratziki zaizkionak. Nolanahi ere, zerga aplikatzeko lurraldean dagoen entitate eratzaile batek egindako banaketei lotutako atxikipenekin bat datozen zerga estaliak entitate horri eratzikiko zaizkio, zerga osagarri nazionala kalkulatzeko.

4. Aurrekoa gorabehera, zerga osagarri nazionalaren kuota, entitatetzat edo titulazio mekanismotzat jotzen diren entitate eratzaileei dagokiena, talde multinazionala edo talde nazional handia osatzen duten gainerako entitate eratzaileek –zerga aplikatzeko lurraldean daudenek eta zergaldian irabazi onargarriak izan dituztenek– ordaindu beharko dute, gainerako entitate eratzaile bakoitzak zergaldian lortu duen irabazi onargarriaren eta zerga aplikatzeko lurraldeko irabazi onargarri bateratuen arteko proportzioan. Hala ere, talde multinazionala edo talde nazional handia osatzen duten eta zergaldian irabazi onargarriak lortu dituzten beste entitate eratzailerik ez badago, hau da, titulazio-entitate edo -mekanismotzat jotzen diren entitate eratzaileak ez diren entitate eratzailerik ez badago, azken horiek ordaindu beharko dute zergaldiari dagokion zerga osagarri nazionalaren kuota.

Titulazio-entitate edo -mekanismotzat joko da titulazio akordio batean parte hartzen duen entitate edo mekanismoa, ondoko baldintza hauek betetzen dituena:

a) Entitateak edo mekanismoak titulazio akordio bat edo gehiago onartzen duten jarduerak soilik egitea.

b) Beren aktiboek beren hartzekodunen edo beste titulizazio-entitate edo -mekanismo baten hartzekodunen eskubideak bermatzea.

c) Beren aktiboek sortzen dituzten kutzako fluxuak beren hartzekodunei edo beste titulizazio-entitate edo mekanismo baten hartzekodunei ordaintzeko erabiltzea, urtean behin edo maiztasun handiagoz, honako hauek ez badira:

i) Etekinen zenbateko bat –titulizazio akordioan eskatzen dena– estaltzeko atxiki behar diren kutzako fluxuak, kasua bada, partaidetzak dituztenen edo akziodunen artean banatzeko.

ii) Titulizazio akordioaren arabera, ondoko helburuetako edozein (edo biak) betetzea ahalbidetzen duten kutzako fluxuak:

1. Titulizazio akordioan ezarri diren eta etorkizunean egin beharko diren ordainketak egiteko zuzkidura bermatzea.

2. Entitatearen edo mekanismoaren kreditu kaudimenari eustea edo hura hobetzea.

Etekinak dituen entitate edo mekanismo bat ez da titulizazio-entitate edo -mekanismozat hartuko, salbu eta apartatu honen c) letraren i) idatz-zatiak aipatzen dituen etekinak garrantzi eskasekoak direnean, entitate edo mekanismoaren diru-sarrerei dagokienez.

Titulizazio akordiotzat hartuko da:

a) Aktibo zorro bat (edo aktibo horiei lotutako arriskuak) talde multinazionala edo talde nazional handia osatzen duten entitate eratzaille ez diren inbertitzaileentzat biltzeko edo berriz biltzeko egiten den akordioa, ondorioz, ondo identifikatutako aktiboen talde bat edo gehiago legez bereizteko; eta

b) Inbertitzaileen esposizioa –legez bereizitako aktiboak dituen entitatearen kaudimengabeziaren arriskuarekiko– mugatzeko egiten den akordioa; entitate horren (edo akordioan aurreikusitako beste entitate baten) identifikatutako hartzekodunek entitatearen aurka erreklamazioak aurkezteko duten gaitasuna kontrolatzen da, hartzekodun horiek sinatzen dituzten kontratu lotesleen bidez.

IV. KAPITULUA

Zerga osagarri primarioa: zergaren eratxikipena eta errentak sartzeko arauaren konpentsazioa

28. artikulua. Zerga osagarri primarioaren eratxikipena.

1. Foru Arau honen 8. artikulua 3. apartatuan aipatutako zergadunak –hau da, egoitza zergapetze maila baxuko jurisdikzio batean duen entitate eratzaille batek– zor duen zerga osagarri primarioa entitate eratzaille horren zerga osagarriaren berdina izango da, azken hori Foru Arau honen 26. artikuluan xedatutakoaren arabera kalkulatuta, matrize entitateari dagokion eta hurrengo apartatuan xedatutakoaren arabera kalkulatutako proportzioan.

Aipatutako zergaduna, halaber, egoitzarik gabeko eta zergapetze maila baxuko entitate eratzaillei dagokien zerga osagarri primarioari lotuta egongo da, horrelakoetan partaidetzak izanez gero.

2. Zergapetze maila baxua duen entitate eratzaille bati dagokion zerga osagarri primarioaren zatia, matrize entitateari eratxikitzea, matrize entitateak zergapetze

maila baxuko entitate eratzailearen irabazi onargarrietan duen partaidetzari dagokion proportzioa izango da. Proportzio hori honela lortzen den emaitzaren berdina izango da: zergapetze maila baxua duen entitate eratzailearen irabazi onargarriak, zergaldiari dagozkionak, beste titularren partaidetzei egotz dakizkiekeen irabazien zenbatekoa kenduta, zati entitate eratzaile horren irabazi onargarriak.

Zergapetze maila baxuko entitate eratzaile batean beste titular batzuek dituzten partaidetzei eratzikitzeko irabazi onargarrien zenbatekoa honako hau izango da: titular horiei eratzikitzeko modukotzat joko zena, azken matrize entitatearen egoera-orri finantzario bateratuetan erabilitako finantza kontabilitatearen araudiko printzipioen arabera, zergapetze maila baxuko entitate eratzailearen kontabilitateko irabazi garbiak irabazi onargarrien berdinak izanez gero, eta:

- a) Matrize entitateak egoera-orri finantzario bateratuak apatutako kontabilitate araudiaren arabera eginez gero (aurrerantzean, «egoera-orri finantzario bateratu hipotetikoak»);
- b) Matrize entitatea zergapetze maila baxuko entitate eratzailearen kontrol partaidetzaren titularra izanez gero, eta zergapetze maila baxuko entitate eratzailearen diru-sarrerara eta gastu guztiak matrize entitatearen diru-sarrerara eta gastuekin integrazio globaleko metodoaren bidez bateratuta egonez gero, egoera-orri finantzario bateratu hipotetikoetan;
- c) Zergapetze maila baxuko entitate eratzailearen irabazi onargarri guztiak taldeko entitate ez diren pertsonekin egiten diren eragiketei eratzikigarriak izanez gero; eta
- d) Matrize entitateak zuzenean edo zeharbidez dituen partaidetza guztiak taldeko entitateak ez diren pertsonen edukiz gero.

29. artikulua. Konpentsazio arauak.

Foru Arau honen 8. artikulua 3. apartatuan xedatutakoaren arabera zergaduna den matrize entitate batek zergapetze maila baxuko entitate eratzaile batean zeharkako partaidetza bat duenean, errentak sartzeko arau onargarri bat bete behar duen tarteko matrize entitate baten edo partzialki partaidetzapeko matrize entitate baten bitartez, zergaldian, zergadun horrek zor duen zerga osagarri primariotik kendu egingo da tarteko matrize entitateak edo partzialki partaidetzapeko matrize entitateak zor duen zerga osagarriaren zatia –Foru Arau honen 28. artikulua 2. apartatuari jarraikiz eratziki behar zaiona– bezalakoa den zenbatekoa.

V. KAPITULUA

Zerga osagarri sekundarioa: behar adina zergapetu ez diren etekinak sartzeko araua aplikatzea

30. artikulua. Behar adina zergapetu ez diren etekinen araua aplikatzea.

1. Talde multinazional baten azken matrize entitateak errentak sartzeko arau onargarrien bat aplikatzen ez duen beste jurisdikzio batean egoitza duenean edota matrize entitate hori kanpo utzitako entitatea denean, Foru Arau honen 8. artikulua 4. apartatuak aipatzen dituen entitate eratzaileek, zergaldian, zerga aplikatzen duen lurraldeari –behar adina zergapetu ez diren etekinen araua betez– eratzikitzeko zerga osagarriaren zenbatekoa ordaindu beharko dute, Foru Arau honen 31. artikuluan xedatutakoaren arabera.

2. Talde multinazional baten azken matrize entitateak zergapetze maila baxua duen beste jurisdikzio batean egoitza duenean, Foru Arau honen 8. artikulua 4. apartatuak aipatzen dituen entitate eratzailleek, zergaldian, azken matrize entitate horri eta jurisdikzio berean dituen entitate eratzaillei dagokien zerga osagarriaren zenbatekoa ordaindu beharko dute, behar adina zergapetu ez diren etekinen araua betez, zerga aplikatzen den lurraldeari eratzikitakoa, Foru Arau honen 31. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aurreko apartatuan xedatutakoa ez da aplikatuko, zergapetze maila baxuko jurisdikzioan dagoen azken matrize entitateak, zergaldian, errentak sartzeko arau onargarri bat bete behar badu, entitateari berari eta zergapetze maila baxuko jurisdikzio horretan dituen entitate eratzaillei dagokienez.

3. Talde multinazional baten azken matrize entitateak errentak sartzeko araua eta behar adina zergapetu ez diren etekinen araua (Kontseiluak abenduaren 15ean eman zuen 2022/2523 EB Zuzentarauaren 50. artikuluko 1. apartatuan xedatutakoari jarraikiz) gerora aplikatzea erabaki duen estatu kide batean egoitza duenean, Foru Arau honen 8. artikulua 4. apartatuak aipatzen dituen entitate eratzaille zergadunek artikulua honen 1. eta 2. apartatuetan aipatzen den zerga osagarriaren zenbatekoa ordaindu beharko dute, hain zuzen, behar adina zergapetu ez diren etekinen araua betez zerga aplikatzen den lurraldeari eratzikitako zenbatekoa, Foru Arau honen 31. artikuluan xedatutakoarekin bat etorrira, aukera hori indarrean egongo den zergaldietan.

4. Inbertsio entitateak diren entitate eratzaillei ez zaie aplikatuko artikulua honetan xedatutakoa.

31. artikulua. Behar adina zergapetu ez diren etekinen arauari lotuta dagoen zerga osagarri sekundarioaren kalkulua eta eratzikipena.

1. Zerga osagarri sekundarioaren zenbatekoa, zerga aplikatzen den lurraldeari eratziki behar zaiona, honela kalkulatu da: behar adina zergapetu ez diren etekinen arauari lotutako zerga osagarriaren zenbateko osoa, artikulua honen 2. apartatuan xedatutakoaren arabera zehaztu dena, bider zerga aplikatzen den lurraldeko behar adina zergapetu ez diren etekinen arauaren portzentajea, artikulua honen 5. apartatuan xedatutakoaren arabera zehaztu dena.

2. Behar adina zergapetu ez diren etekinen arauari lotutako zerga osagarri sekundarioaren zenbateko osoa, zergaldiari dagokiona, talde multinazionala osatzen duen eta zergapetze maila baxuko jurisdikzio batean dagoen entitate eratzaille bakoitzeko, zergaldian kalkulatuak zerga osagarrien batuketaren berdina izango da, Foru Arau honen 26. artikuluan xedatutakoaren arabera, artikulua honen 3. eta 4. apartatuetan ezarritako doikuntzak alde batera utzi gabe.

3. Zergapetze maila baxuko entitate eratzaille baten zerga osagarria, behar adina zergapetu ez diren etekinen arauari lotutakoa, zero izango da honako kasu hauetan: zergaldian, entitate eratzaille horretan dituen partaidetza guztiak, azken matrize entitateari dagozkionak, zergaldi horretan, entitate eratzaille horrekiko errentak sartzeko arau onargarri bat aplikatu behar duen matrize entitate batek edo gehiagok edukitzen dituenean, zuzenean edo zeharbidez.

4. (1) Aurreko 3. apartatuan xedatutakoa aplikatzen ez denean, zergapetze maila baxuko erakunde eratzaille batek behar adina zergapetu gabeko etekinen arauari lotuta ordaindu beharreko zerga osagarriaren zenbatekotik osagarritik honako hau kenduko da: zerga

errentak sartzeko arau onargarri baten arabera ordaintzen dituen zergapetze maila baxuko erakunde eratzaile bati egotzi ahal zaion zatia.

5. Behar adina zergapetu ez diren etekinen arauaren portzentajea, zerga aplikatzen den lurraldeari dagokiona, zergaldi eta talde multinazional bakoitzeko kalkulatu da, ondoko bi faktoreak batuz:

i) Zerga aplikatzen den lurraldeko langile kopuruaren eta behar adina zergapetu ez diren etekinen araua aplikatzen duten jurisdikzio guztietako langile kopuruaren arteko zatiduraren ehuneko 50.

ii) Zerga aplikatzen den lurraldeko aktibo materialen balio osoaren eta behar adina zergapetu ez diren etekinen araua aplikatzen duten jurisdikzio guztietako aktibo materialen balio osoaren arteko zatiduraren ehuneko 50.

Apartatu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, honako hau kontuan hartuko da:

a) Zerga aplikatzen den lurraldeko langile kopurua lurralde horretan egoitza duen talde multinazionalako entitate eratzaile guztietako langileen kopuru osoa da.

b) Behar adina zergapetu ez diren etekinen arau bat aplikatzen duten jurisdikzio guztietako langile kopurua hau da: talde multinazionala osatzen duten eta behar adina zergapetu ez diren etekinen arau onargarri bat zergaldian indarrean duen jurisdikzio batean dauden entitate eratzaile guztietako langile kopuru osoa.

c) Zerga aplikatzen den lurraldeko aktibo materialen balio osoa talde multinazionala osatzen duten eta egoitza lurralde horretan duten entitate eratzaile guztietako aktibo materialen kontabilitate balio garbiaren batuketa da.

d) Behar adina zergapetu ez diren etekinen arau bat aplikatzen duten jurisdikzio guztietako aktibo materialen balio osoa hau da: talde multinazionala osatzen duten eta behar adina zergapetu ez diren etekinen arau onargarri bat zergaldian indarrean duen jurisdikzio batean dauden entitate eratzaile guztietako aktibo materialen kontabilitate balio garbiaren batuketa.

6. Langile kopurua lanaldi osoaren baliokide diren lanpostuetan diharduten langileen kopurua izango da, dagokion jurisdikzioan egoitza duten entitate eratzaile guztietakoa, kontratista independenteak barne, baldin eta entitate eratzailearen funtzionamendu jardura arruntetan parte hartzen badute.

Aktibo materialek barnean hartuko dituzte egoitza dagokion jurisdikzioan duten entitate eratzaile guztietako aktibo materialak, alde batera utzita eskudirua edo eskudiruaren baliokide diren ordainbideak, baita aktibo ukiezinak edo finantzarioak ere.

7. Soldata kostu batzuk establezimendu iraunkor baten finantza kontabilitatean –Foru Arau honen 14. artikularen 1. apartatuari jarraikiz bereizitakoan, eta Foru Arau honen 14. artikularen 2. apartatuan xedatutakoaren arabera doitutakoan– sartuta daudenean, kostu horiei lotutako langileak establezimendu iraunkorra dagoen jurisdikzioari eratzikiko zaizkio.

Aktibo material batzuk establezimendu iraunkor baten finantza kontabilitatean –Foru Arau honen 14. artikularen 1. apartatuari jarraikiz bereizitakoan, eta Foru Arau honen 14. artikularen 2. apartatuan xedatutakoaren arabera doitutakoan– sartuta daudenean, establezimendu iraunkorra dagoen jurisdikzioari eratzikiko zaizkio.

Establezimendu iraunkor baten jurisdikzioari eratzikitako langile kopurua eta aktibo materialak ez dira aintzat hartuko matrize entitatearen jurisdikzioako langile kopurua eta aktibo materialak kalkulatzeko.

Inbertsio entitate baten kasuan, langile kopurua eta aktibo materialen kontabilitate balio garbia artikuluko honen 5. apartatuan ezarritako formulatik kanpo geratuko dira.

Entitate garden baten kasuan, langile kopurua eta aktibo materialen kontabilitate balio garbia artikuluko honen 5. apartatuan aipatutako formulatik kanpo geratuko dira, baldin eta establezimendu iraunkor bati edota, establezimendu iraunkorrik ezean, entitate gardenaren sortu den jurisdikzioan egoitza duten entitate eratzaileei eratziki ez bazaizkie.

8. Aurreko 5. apartatuan xedatutakoa gorabehera, behar adina zergapetu ez diren etekinen arauaren portzentajea, jurisdikzio bati eta talde multinazional bati dagokiona, zero dela joko da zergaldi batean, behar adina zergapetu ez diren etekinen arauari lotutako zerga osagarriaren zenbatekoak, jurisdikzio horri aurreko zergaldi batean eratzikitakoak, ez bazuen ondorioz ekarri talde multinazional hori osatzen duten eta jurisdikzio horretan dauden entitate eratzaileek jurisdikzio horri eratzikitako aurreko zergaldian lotutako zerga osagarriaren zenbatekoa ordaindu behar izaterik.

Kasu horretan, zergaldi batean behar adina zergapetu ez diren etekinen arauaren portzentajea zero duen jurisdikzio batean egoitza duen talde multinazional bateko entitate eratzaileetako langile kopurua eta aktibo materialen kontabilitate balio garbia ez dira aintzat hartuko behar adina zergapetu ez diren etekinen arauari lotutako zerga osagarriaren zenbateko osoa zergaldi horretan talde multinazionalari eratzikitze formularen osagaietan.

9. Artikuluko honen 8. apartatua ez zaio zergaldiari aplikatuko, baldin eta behar adina zergapetu ez diren etekinen arau onargarri bat –zergaldi horretan indarrean dagoena– duten jurisdikzio guztiek, behar adina zergapetu ez diren etekinen arauari dagokionez, zero portzentajea badute, talde multinazional batentzat zergaldi horretan.

10. Zerga aplikatzen den lurraldeari artikuluko honen aurreko apartatuetan xedatutakoaren arabera eratzikitako zerga osagarriaren zenbatekoa Foru Arau honen 8. artikuluko 4. apartatuak aipatzen dituen entitate eratzaileei eratzikiko zaie, baldin eta Foru Arau honen 27.4 artikuluan definitutako titulizazio-entitate edo -mekanismoen izaerarik ez duten entitate eratzaileak badira; eratzikipena artikuluko honen 5. apartatuan erabilitako formularen bidez egingo da, non zenbakitzailea entitate eratzaileetako bakoitzeko langile kopuruari eta aktibo materialen balio osoari baitagokio; izendatzailea, aldiz, aipatutako entitate eratzaile guztietako langile kopuruari eta aktiboen balio osoari dagokie.

Aurrekoa gorabehera, talde multinazionala osatzen duten eta zerga aplikatzen den lurraldean egoitza duten entitate eratzaile guztiek titulizazio-entitate edo -mekanismoen izaera dutenean, apartatu honetan aurreikusitako eratzikipena artikuluko honen 5. apartatuan erabilitako formularen bidez egingo da, non zenbakitzailea entitate eratzaileetako bakoitzeko langile kopuruari eta aktibo materialen balio osoari baitagokio; izendatzailea, aldiz, aipatutako entitate eratzaile guztietako langile kopuruari eta aktiboen balio osoari dagokie.

VI. KAPITULUA

Zerga osagarri gehigarria

32. artikulua. Zerga osagarri gehigarria.

1. Foru Arau honen 12. artikulua 7. apartatuak, 20. artikulua 7. apartatuak, 23. artikulua 1. eta 4. apartatuek, arau honen hurrengo 5. apartatuak eta 44. artikulua 4. apartatuak xedatzen duenaren arabera zerga estalien edo irabazi edo galera onargarrien doikuntza baten ondorioz zerga tasa efektiboa eta talde multinazionalaren edo talde nazional handiaren zerga osagarria, aurreko zergaldiari dagokiona, berriz kalkulatu behar direnean, zerga tasa efektiboa eta zerga osagarria Foru Arau honen 16. artikuluan eta VII. titulua II., III., IV. eta V. kapituluetan ezarritako arauen arabera kalkulatu dira berriro, aurreko zergaldi horretarako. Kalkulu berriak Zerga Osagarrian eragiten duen igoera kalkulu berria egiten den zergaldiko zerga osagarri gehigarritzat hartuko da Foru Arau honen 26. artikulua 4. apartatuaren ondorioetarako.

2. Zerga osagarri gehigarria sortzen denean, jurisdikzioan eta zergaldian irabazi onargarri garbiak erregistratu gabe, jurisdikzio horretan egoitza duen entitate eratzailerako bakoitzaren irabazi onargarriak honako eragiketa honen emaitza izango dira: Foru Arau honen 26. artikulua 5. eta 6. apartatuen arabera entitate eratzailerako horiei eratzikitako zerga osagarri gehigarria zati gutxieneko zerga tasa.

3. Foru Arau honen 19. artikulua 5. apartatuaren arabera zerga osagarri gehigarria zor denean, jurisdikzioan egoitza duen entitate eratzailerako bakoitzaren irabazi onargarriak honela kalkulatu dira: entitate eratzailerako horiei eratzikitako zerga osagarri gehigarria zati gutxieneko zerga tasa. Eratzikipena entitate eratzailerako bakoitzari egingo zaio, honako eragiketa hauen bidez lortutako portzentajea kontuan hartuta: entitate eratzaileraren irabazi edo galera onargarriak gutxieneko zerga tasaz biderkatu eta gero, biderkaduratik entitate eratzaileraren doitutako zerga estalien zenbatekoa kenduta, zati: entitate eratzailerako guztien irabazi edo galera onargarriak gutxieneko zerga tasaz biderkatuta, eta biderkaduratik entitate eratzailerako guztien doitutako zerga estalien zenbatekoa kenduta.

Zerga osagarri gehigarria doitutako zerga estalien zenbateko negatiboa eta –entitate eratzailerako horien irabazi edo galera onargarriak gutxieneko zerga tasaz biderkatuta– emaitza baino gutxiago dena erregistratu duten entitate eratzailerako soilik eratzikiko zaie.

4. Entitate eratzailerako bati zerga osagarri gehigarri bat eratzikitzen zaionean, artikulua honi eta Foru Arau honen 26. artikulua 5. eta 6. apartatuei jarraikiz, entitate eratzailerako hori zergapetze maila baxuko entitate eratzaileratzat hartuko da Foru Arau honen ondorioetarako.

5. Zerga osagarri nazional onargarriaren zenbatekoa, osoa edo partziala, beste jurisdikzio bati dagokiona, galdagarria gertatu zen zergaldia bukatu eta hurrengo lau zergaldietan ordaindu ez bada, ordaindu ez den zergaren zenbatekoa zerga osagarriaren kuotari gehituko zaio, kuota hori Foru Arau honen 26. artikuluan ezarritakoaren arabera zehaztuta; kuotaren zenbatekoa, 2022/2523 (EB) Zuzentarauaren 11.3 artikulua xedatutakoa betez, ez da bilduko galdagarria gertatu zen jurisdikzioan.

VIII. TITULUA

Zergaldia eta sortzapena

33. artikulua. Zergaldia.

Zerga Osagarriaren zergaldia, talde multinazional bat edo talde nazional handi bat osatzen duten entitate eratzailleen kasuan, bat etorriko da talde multinazionalaren edo talde nazional handiaren azken matrize entitatearen ekitaldi ekonomikoarekin, egoera-orri finantzario bateratuak egiten baditu; bestela, urte naturalarekin bat etorriko da.

34. artikulua. Zergaren sortzapena.

Zerga Osagarria zergaldiaren azken egunean sortuko da.

IX. TITULUA

Zerga Osagarriaren galdagarritasunik eza

35. artikulua. De minimis salbuespena.

1. Foru Arau honen 16., 24., 25., 26., 32. eta 48. artikuluetan xedatutakoa alde batera utzi gabe, entitate eratzaille aitortzaileak artikulua honetan aurreikusitako aukera gauzatzen badu, jurisdikzio batean egoitza duten entitate eratzailleei dagokien zerga osagarria zero izango da, ondoko baldintzak betetzen diren zergaldian:

a) Jurisdikzio horretan egoitza duten entitate eratzailleen diru sarrera onargarrien batezbestekoa 10 milioi euro baino gutxiago izatea; eta

b) Jurisdikzio horretako entitate eratzaille guztien irabazi edo galera onargarrien batezbestekoak galera bat edo milioi bat euro baino gutxiagoko irabazi bat izateko aukera ematea.

Apartatu honetan aurreikusitako aukera urtean behin hautatu ahal izango da, Foru Arau honen 51. artikulua 2. apartatuan xedatutakoaren arabera.

2. Aurreko apartatuak aipatzen dituen batezbestekoak kalkulatzeko, hots, diru sarrera onargarrien batezbestekoa eta irabazi edo galera onargarrien batezbestekoa, hasitako zergaldia eta aurreko bi zergaldiak hartuko dira aintzat.

Aurreko bi zergaldietako batean ez badago jurisdikzioan egoitza duen eta diru sarrera onargarriak edo galera onargarriak dituen entitate eratzailerik, zergaldi hori ez da aintzat hartuko diru-sarrera onargarrien zenbatekoa edo jurisdikzio horretako irabazi edo galera onargarrien batezbestekoaren zenbatekoa kalkulatzeko.

3. Jurisdikzio bateko entitate eratzailleen diru sarrera onargarrien zenbatekoa, zergaldi batekoa, jurisdikzio horretan dagoen entitate eratzaille bakoitzaren diru sarreren zenbateko garbiaren batuketa izango da, Foru Arau honen 11. artikulutik 15. artikulura bitartekoetan xedatutakoaren arabera doikuntzak eginda.

4. Jurisdikzio batean egoitza duten entitate eratzailleen irabazi edo galera onargarriak, zergaldiari dagozkionak, jurisdikzio horretako irabazi edo galera onargarriak izango dira, Foru Arau honen 24. artikulua erekin bat kalkulatuak.

5. Artikulu honetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko egoitzarik gabeko entitate eratzaleei, ezta inbertsio entitateei ere. Entitate horien diru sarrera onargarrien eta diru sarrera edo galera onargarrien zenbatekoa ez da aintzat hartuko artikulu honetan aurreikusitako de minimis salbuespena kalkulatzeko.

36. artikulua. Zerga Osagarriaren galdagarritasunik eza.

1. (1) Foru arau honen 8. artikuluan aipatutako zergadunei dagokien zerga osagarri primarioa, beste jurisdikzio batean zerga osagarri nazional bati lotuta dauden erakunde eratzaleei dagokienez, zero izango da zergaldian, jurisdikzio horrek zerga osagarri nazional onargarri bat eskatzen duenean, baldin eta horrek bermatzen badu zerga horri lotuta dauden erakunde eratzaleen zerga maila efektiboak betetzen dituela portu seguruei buruzko nazioarteko itun baten baldintzak.

2. (1) Foru arau honen 8. artikuluan aipatutako zergadunen zerga osagarria, «portu seguruei buruzko nazioarteko itun onargarriaren» baldintzak betetzen dituen jurisdikzio batean dauden entitate eratzaleei dagokiena, zero izango da zergaldian, aipatutako nazioarteko itunean ezarritako moduan.

c) Entitate eratzaille bat, azken entitate nagusia ez dena eta talde multinazionalak izendatua, baldin eta zergaldian dagoen beste jurisdikzio batean badago, informazioa trukatzeko, Espainiako Erresumarekin indarrean dagoen agintaritza eskudunaren akordio onargarri bat.

Aurreko b) letran aurreikusitako kasuan, zerga aplikatzen den lurraldean hainbat entitate eratzaille badaude, eta horietako bat talde multinazionalak edo talde nazional handiak zerga osagarriaren informazio aitorpena aurkezteko izendatutako toki-erakundea izan bada, erakunde horrek bakarrik aurkeztu beharko du aitorpena aurreko apartatuaren arabera, betiere informazioa aurkezteko behar den informazio guztia lor badezake artikulu honetan ezarritakoaren arabera. Bestela, aurreko apartatuan xedatutakoa aplikatuko da.

Halaber, zerga aplikatzen den lurraldean kokatutako entitate eratzaile bat, azken erakunde nagusiaren izaera ez duena, kide den talde multinazionalak izendatu badu zerga osagarriaren informazio aitortpena aurkezteko, talde multinazionalaren azken entitate nagusiari talde horri dagokion informazioa eskatu beharko dio.

Apartatu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, zergaren aplikazio-lurraldean errotuta dagoen eta hemen ezarritako aitortpena aurkeztu behar duen talde multinazional edo nazional handi bateko kide den edozein entitate eratzailek Zerga Administrazioari jakinarazi beharko dio aitortpena aurkezteko izendatutako azken erakunde nagusiaren edo erakundearen identifikazioa eta bizilekua, erregelamenduz zehaztutako moduan eta epean.

4. Zerga osagarriari buruzko informazio aitortpenean, besteak beste, honako informazio hau jasoko da, erregelamenduz ezartzen diren berezitasunekin:

a) Entitate eratzaileen identifikazioa, identifikazio fiskaleko zenbakiekin eta, hala badagokio, entitate horiek kokatuta dauden jurisdikzioarekin, bai eta foru-arau honetako xedapenen arabera kategorizazioa ere.

b) Taldearen egitura orokorrari buruzko informazioa, taldea osatzen duten entitateen gaineko zuzeneko edo zeharkako kontrol-partaidetzak barne, bai eta zerga osagarriaren arauak aplikatzen kanpo dauden entitateetako partaidetzei buruzko informazioa eta aitortpenean aipatzen den zergaldian taldearen konfigurazioan izandako edozein aldaketa ere.

c) Honako hauek kalkulatzeko behar dena:

i) Jurisdikzio bakoitzerako zerga-tasa efektiboa eta entitate eratzaile bakoitzaren zerga osagarria.

ii) Baterako negozio bateko talde bateko kide baten zerga osagarria.

iii) Jurisdikzio bakoitzari zerga osagarriaren zenbatekoaren esleipena.

d) Foru arau arau honen arabera baliatutako aukeren erregistro bat.

e) Adierazpen honen helbururako garrantzitsuak diren beste edozein datu.

5. Artikulu honen 4. apartatuan xedatutakoa gorabehera, entitate eratzaile bat zergaren aplikazio-lurraldean dagoenean eta azken entitate nagusia foru-arau honen arauen baliokidetzat baloratutako arauak aplikatzen dituen hirugarren jurisdikzio batean dagoenean, foru-arau honen 56. artikuluen arabera, entitate eratzaileak edo izendatutako toki-erakundeak zerga osagarriari buruzko informazio aitortpen bat aurkeztuko du, informazio hau jasoko duena:

a) 8. artikuluko 3. apartatuko iii) tartekia aplikatzeko beharrezkoa dena, eta bereziki:

i) Partaidetza partziala duen entitate nagusi batek zergaldiko edozein unetan entitate batean zuzenean edo zeharka partaidetza duen entitate eratzaile guztien identifikazioa eta partaidetza horien egitura;

ii) Partzialki partaidetutako entitate nagusi batek i) tartekian identifikatutako entitate eratzaileetan partaidetzak dituen jurisdikzioen zerga-tasa efektiboa eta zor den zerga osagarria kalkulatzeko beharrezkoa dena; eta

iii) Foru-arau honen 27., 28. eta 29. artikuluen arabera horretarako dagokiona.

b) 30. artikuluko 2. apartatua aplikatzeko beharrezkoa dena, honako hauek barne:

i) Azken erakunde nagusiaren jurisdikzioan kokatutako entitate eratzaile guztien identifikazioa eta haien partaidetzen egitura;

ii) Azken entitate nagusiaren jurisdikzioaren zerga-tasa efektiboa eta entitate horren zordena zerga osagarria kalkulatzeko behar dena; eta

iii) Zerga osagarri hori esleitzeko beharrezkoa dena, foru arau honen 30. eta 31. artikuluetan ezarritako behar adina zergapetuta ez dauden mozkinen araua aplikatuz.

c) Zerga osagarri nazional bat aplikatzeko behar den informazioa, zerga osagarri hori aplikatzea erabaki duen edozein jurisdikziok onar dezakeena.

6. Zerga osagarriari buruzko informazio aitortpena Arabako Foru Aldundiari aurkeztuko zaio, erregelamenduz zehazten den moduan, artikuluko 2. apartatuan xedatutakoaren arabera, zergaldiaren azken egunaren ondorengo hamabosgarren hilabetearen azken egunera arte, hargatik eragotzi gabe foru arau honen bosgarren xedapen iragankorrean ezarritakoa. Beste edozein komunikazio egoki Arabako Foru Aldundian ere aurkeztuko da, artikuluko 2. apartatuan xedatutakoaren arabera eta erregelamendu bidez zehazten diren baldintzetan.

50. artikulua. Zehapen araubidea.

1. Zergen arloko arau haustea dira honako hauek:

a) Foru arau honen 49. artikuluan aipatzen den informazio aitortpena epearen barruan ez aurkeztea.

Arau-haustea larria izango da, eta zehapena 10.000 euroko diruzko isun finkoa izango da aitortpenean sartu beharreko datu edo datu-multzo bakoitzeko. Gehieneko muga hau izango da: talde multinazional edo talde nazional handia osatzen duten erakunde guztien negozio-zifraren zenbateko garbiaren % 1, kanpoan utzitako erakundeena barne, zergaldiko azken entitate nagusiaren finantza-egoera bateratuen arabera.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako zehapena eta gehieneko muga erdira murriztuko dira aitortpena epea kanpo aurkeztu bada zerga-administrazioak alde aurretik errekerimendurik egin gabe.

Epe barruan aitortpen osatugabeak, zehaztugabeak edo datu faltsuak dituztenak aurkezten badira, eta ondoren epea kanpo aurkezten bada aurretiazko errekerimendurik gabe aurrekoen aitortpen osagarri edo ordezkoko bat, ez da zenbaki honetako b) letran aipatzen den arau-haustea gertatuko epearen barruan aurkeztutako aitortpenei dagokienez, eta apartatu hau aplikatzearen ondoriozko zehapena ezarriko da epea kanpo deklaraturakoari dagokionez.

b) Foru arau honen 49. artikuluan aipatzen den informazio aitortpena osatugabe, zehaztugabe edo datu faltsuekin aurkeztea.

Arau-haustea larria izango da, eta zehapena 10.000 euroko diruzko isun finkoa izango da aitortpenean sartu beharreko datu edo datu-multzo bakoitzeko. Gehieneko muga hau izango da: talde multinazional edo talde nazional handia osatzen duten erakunde guztien negozio-zifraren zenbateko garbiaren % 1, kanpoan utzitako erakundeena barne, zergaldiko azken entitate nagusiaren finantza-egoera bateratuen arabera.

c) Apartatu honetan araututako arau-hausteak eta zehapenak bateraezinak izango dira Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 foru arau Orokorraren 202. eta 203. artikuluetan ezarritakoekin.

2. Zerga arloko arau-hauste larria da foru arau honetako 49. artikuluko 3. idatz-zatian eta hirugarren xedapen iragankorreko 5. idatz-zatian, hurrenez hurren, aipatzen diren jakinarazpenetako edozein epe barruan ez aurkeztea. Zehapena, hurrenez hurren, 10.000 euroko diruzko isun finkoa izango da.

II. KAPITULUA

Aukerak erabiltzea

51. artikulua. Aukerak erabiltzea.

1. Foru arau honetako 9. artikuluko 2. idatz-zatian, 12. artikuluko 2. idatz-zatiko b) letran, 3., 6. eta 9. idatz-zatietan eta 46. eta 47. artikuluetan aipatzen diren aukerak horiek gauzatzen diren zergalditik aurrera aplikatuko dira, eta uko egin ahal izango zaie zergaldi hori hasten denetik bost urte igaro ondoren. Uko egiteak gutxienez bost urteko iraupena izango du, uko egiten den zergaldia hasten denetik zenbatzen hasita.

2. Foru arau honetako 12. artikuluko 7. idatz-zatian, 16. artikuluko 2. idatz-zatian, 20. artikuluko 1. idatz-zatiko b) letran, 23. artikuluko 1. idatz-zatian, 35. artikuluko 1. idatz-zatian eta 44. artikuluko 1. idatz-zatian aipatzen diren aukerak horiek gauzatzen diren zergalditik aurrera aplikatuko dira, eta baita ukoa jakinarazi aurretik amaitzen diren hurrengo zergaldietan ere.

3. Foru arau honetako 19. artikuluko 5. apartatuan aipatzen den aukera ezeztatzina izango da, eta gauzatzen den zergalditik aurrera aplikatuko da, baita ondorengoetan ere, manu horretan aurreikusitako moduan.

4. Aurreko hiru apartatuetan adierazitako aukerak entitate eratzaille aitortzaileak edo 49. artikuluen 2. idatz-zatian aurreikusitako Zerga Osagarriaren informazio aitorpenean izendatutako erakunde aitortzaileak baliatuko ditu, eta Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 115. artikuluen 3. idatz-zatian xedatutakoa aplikatuko zaie.

Aurreko 1. eta 2. idatz-zatietan adierazitako aukerei uko egin ahal izango die entitate eratzaille aitortzaileak edo 49. artikuluen 2. idatz-zatian aurreikusitako Zerga Osagarriaren informazio aitorpenean izendatutako erakunde aitortzaileak, eta Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 115. artikuluen 3. idatz-zatian xedatutakoa aplikatuko zaie.

XII. TITULUA

Zergaren kudeaketa

52. artikulua. Zerga-aitorpena.

1. Zergadunek, edo, hala badagokio, zergadunaren ordezkotzat hartzen den entitateak, zergaren autolikidazioa aurkeztuko dute, eta zerga-zorra ordainduko diote Arabako

Aldundiari, ordainarazteko eskumen eskusiboa berari dagokionean, foru arau honen 3. artikuluan ezarritako arauarekin bat etorritik.

Aipatutako 3. artikuluan xedatutakoaren arabera hainbat administrazioari zergak ordaintzen zaizkien kasuetan, honako arau hauek aplikatuko dira:

Lehenengoa. Zergaren likidazioen emaitza dagozkien administrazioei egotziko zaie, horietako bakoitzaren lurraldean egindako eragiketen bolumenaren proportzioan, sozietateen gaineko zergaren azken zergaldiari dagokionez, edo, hala badagokio, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren azken zergaldiari dagokionez, zerga osagarriaren sortzapen-datan amaitu edo amaitu bada.

Bigarrena. Autolikidazioa aurkeztera eta zergaren zorra ordaintzera behartuta dauden zergadunek, edo haien ordezkariak, epeak errespetatuz eta dagozkion arautegi formalitateekin, autolikidazioak aurkeztuko dituzte administrazio eskudunetan. Autolikidazio horietan, edonola ere, aplikatzekoa den proportzioa eta administrazio bakoitzerako kuotak jasoko dira.

2. Foru arau honetan ezarritako zergadunek edo, hala badagokio, zergadunaren ordezkoei zerga osagarriagatik zerga aitorpena aurkeztu beharko dute, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak zehazten duen tokian eta moduan, zerga aldia amaitu ondorengo hamabosgarren hilabetearen ondorengo 25 egun naturaleko epean, foru arau honen bosgarren xedapen iragankorrean ezarritakoa aplikatu behar denean izan ezik.

3. Zergadunaren ordezkoei zergadunari eskatu ahal izango dio ordaindutako zerga-betebeharren zenbatekoa.

53. artikulua. Autolikidazioa eta zerga zorraren sarrera.

1. Zerga aitorpena aurkezteko betebeharra duten subjektu pasiboek, foru arau honen 52. artikuluan edo, hala badagokio, bosgarren xedapen iragankorrean aurreikusitako moduan, aitorpena aurkeztean, dagokion zorra zehaztu beharko dute, eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak zehaztutako tokian eta moduan ordaindu.

2. Zerga zorra dagokion inbentarioan edo erregistroan inskribatuta dauden Espainiako edo Euskal Autonomia Erkidegoko Ondare Historikoa osatzen duten ondasunak entregatuz ordaindu ahal izango da, Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legean edo aplikatu beharreko legeria autonomikoan eta Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legean xedatutakoaren arabera.

54. artikulua. Behin-behineko likidazioa.

Zergak kudeatzeko organoek dagokion behin-behineko likidazioa igorri ahal izango dute, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 119. artikulutik 121. artikulura eta 133. artikuluan xedatutakoaren arabera, Zergak Ikuskatzeko Zerbitzuak ondoren egin dezakeen egiaztapen eta ikerketaren kalterik gabe.

XIII. TITULUA

Administrazioaren ahalmenak zerga oinarria zehazteko

55. artikulua. Administrazioak zerga-oinarria eta beste zerga-elementu batzuk zehazteko dituen ahalmenak.

Zerga-oinarria eta zerga osagarriaren gainerako elementuak zehazteko, Zerga Administrazioak foru-arau honen 11. artikuluan eta aplikatu beharreko gainerako arauetan aurreikusitako kontabilitate-arauak aplikatuko ditu.

56. artikulua. Zergaren ikuskapena

1. Arabako Foru Aldundiak ikuskatuko du zerga, foru arau honen 2. artikuluan xedatutakoaren arabera Arabako Lurralde Historikoko araudia zerga honetan aplikatzen duten subjektu pasiboei dagokienez.

Hala ere, Arabako foru Aldundiak egiaztatuko du foru arau honen 2. eta 3. artikuluetan adierazitako eragiketa-bolumena, Arabako Lurralde Historikoko araudia Sozietateen gaineko Zergan edo, hala badagokio, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan aplikatzekoa den eragiketa-bolumena egiaztatzen zaien taldeko erakundeei dagokienez.

Ikuskapen jarduketak Arabako Lurralde Historikoko araudiarekin bat etorritz egin behar dira; nolana ere, honek ez du eragotziko beste zerga administrazioekin lankidetzan aritzea. Ondorio horietarako, Arabako Foru Aldundiak Sozietateen gaineko zerga edo Egoiliarren ez diren errentaren gaineko zerga ikuskatzeko eskumena duen administrazio organo ikuskatzaileen laguntza eskatuko du zerga horietan eskumenik ez duten erakundeei jardun behar denean. Administrazio eskuduneko organo ikuskatzaileen laguntza txosten batean jasoko da; txosten hori ez da loteslea izango administrazio eskuduneari jarduteko.

Jarduketa horien ondorioz bi administrazioei dagokien zor bat ordaindu behar bada, kobrantza edo ordainketa Arabako administrazioak egingo du, alde batera utzi gabe administrazioen artean egin beharreko konpentsazioak. Ikuskapen organoek beren jardunaren emaitzen berri emango diete ukitutako gainerako administrazioei.

Ikuskapen jarduketak Arabako Foru Aldundia ez den beste administrazio batek egiten baditu, Foru Aldundi honi egiaztapen eta ikerketaren arloan dagozkion ahalmenei kalterik egin gabe egin direla ulertuko da, eta jarduketa horiek ez dute ondorio ekonomikorik izango zergadunengan, administrazio eskudunetako organoen jarduketan ondorioz egindako behin betiko likidazioei dagokienez.

Zerga osagarri nazionala, lehen mailakoa eta bigarren mailakoa, osatzen duen erakunde bakoitzari esleitzeko proportzioak administrazio eskudunak finkatuko ditu egiaztapenetan, eta ondorioak izango dituzte zergadunaren aurrean, likidatutako betebeharrei dagokienez, hargatik eragotzi gabe egiaztapen horiek egin ondoren administrazio eskudunen artean behin betiko adosten direnak.

XIV. TITULUA

Baliokidetasunaren ebaluazioa

57. artikulua. Baliokidetasunaren ebaluazioa.

1. Hirugarren jurisdikzio bateko zuzenbide nazionalean aplikatutako esparru juridikoa foru arau honetan ezarritako errentak sartzeko arau onargarri baten baliokidetzat

hartuko da, eta ez da atzerriko sozietate kontrolatuen araubide fiskal gisa tratatuko, baldin eta honako baldintza hauek betetzen baditu:

a) Talde multinazional baten azken entitate nagusiak arau multzo bat betetzea eskatzen du, eta, horien arabera, talde multinazionalaren zerga-maila baxua duten entitate eratzaileei dagokienez zerga osagarritik egotzi ahal zaion zatia kalkulatu eta ordainduko du.

b) Gutxienez % 15eko zerga-tasa efektiboa ezartzen du, eta horren azpitik entitate eratzaile batek zerga-maila txikia duela jotzen da.

c) Gutxienezko zerga-tasa efektiboa kalkulatzeko, jurisdikzio berean kokatutako erakundeen errentak konbinatzea baino ez du ahalbidetzen.

d) Zerga osagarri bat errenta onargarri baliokideak sartzeko arauaren arabera kalkulatzeko, kenkari bat ezartzen du errenta onargarriak sartzeko araua aplikatuz ordaindutako zerga osagarri ororentzat eta zerga osagarri nazional onargarri ororentzat.

2. 2022/2523 (EB) Zuzentarauaren 55. artikuluan aipatzen diren jakinarazpen sinplifikatuko prozedurak aplikatuko dira, artikulua horretan xedatutakoaren arabera adostu badira.

XV. TITULUA

Jurisdikzio ordena

58. artikulua. Jurisdikzio ordena.

Foru arau honetan aipatutako gaien inguruan Zerga Administrazioaren eta zergadunen artean gertatzen diren egitezko edo zuzenbidezko auziak ebazteko jurisdikzio eskudun bakarra administrazioarekiko auzien jurisdikzioa izango da, betiere bide ekonomiko-administratiboa agortu ondoren.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa. (1) Zerga geroratuen ondoriozko aktiboen eta pasiboen eta trantsizioko zergaldian transmititutako aktiboen tratamendu fiskala.

1. Trantsizioko zergalditzat hartuko da foru arau honen 8. artikuluan aipatzen diren zergadunek lehen aldiz jurisdikzio bakoitzari buruz bertan ezartzen dena aplikatu behar duten lehen zergaldia.

Nolanahi ere, trantsizioko zergalditzat hartuko da dena delako jurisdikzioan foru arau honen laugarren xedapen iragankorrean ezarritakoa aplikatzekoa ez den lehen aldia.

2. Trantsizioko zergaldian jurisdikzio bakoitzean aplikatzen den zerga tasa efektiboa zehazteko, bai eta segidako zergaldi bakoitzekoa ere, zerga geroratuen aktibo eta pasibo guztien balioa hartuko da kontuan zerga estalien ondorioetarako, betiere trantsizioko zergaldiaren hasieran zeuden jurisdikzioa osatzen duten erakundeen finantza egoeretan erregistratuta edo xehatuta badaude, hurrengo apartatueta arautzen diren salbuespenak gorabehera.

Balio hori haxe izango da: aurreko paragrafoan aipatzen diren finantzetako egoera orrietan erregistratu edo xehatu denaren eta gutxieneko zerga tasa aplikatuta kalkulatzen denaren arteko txikiena.

Gutxieneko zerga tasa aplikatzearen emaitzako balioa kalkulatzeko eragiketa hauek egin behar dira: aplikatu gabe dauden eta finantzetako egoera orrietan erregistratuta edo xehatuta dauden kreditu fiskalei dagozkien zerga geroratuko aktiboak erregistratu ziren zergaldiaren aurreko zergaldiko zergaren tasa nominalaz zati eta horren emaitza gutxieneko zerga tasaz biderkatu.

Aurrekoa gorabehera, gutxieneko zerga tasatik beherako zerga tasan kontabilizatutako zerga geroratuen ondoriozko aktiboak gutxieneko zerga tasan balioetsi ahal izango dira, baldin eta zergadunak frogatzen badu aktibo hori foru arau honetan xedatutakoaren arabera onargarria izango zen galera bati egotz dakiokeela.

Ez dira kontuan hartuko zerga geroratuen ondoriozko aktibo baten kontabilitate aintzatespenetik edo balioespen doikuntzetatik eratorritako aldaketak.

3. Foru arau honen IV. tituluan xedatutakoaren arabera irabazi edo galera onargarriak zehazteko zenbatu behar ez diren partidetatik eratorritako zerga geroratuen ondoriozko aktiboak ez dira kontuan hartuko aurreko 2. apartatuan aipatzen den kalkulua egiteko, baldin eta aktibo horiek 2021eko azaroaren 30aren ondoren eta trantsizioko zergaldia hasi arte edo trantsizioko zergaldiko finantzetako egoera orrien ondoren egindako transakzio batean sortu badira eta trantsizioko zergaldi horretako finantzetako egoera orrietan erregistratu edo xehatu badira.

Artikulu honen ondorioetarako, transakzioetat hartuko dira agintaritza eskudunen ebazpen eta erabaki guztiak, bai eta aurreko ebazpenak eta erabakiak aldatzea ere, baldin eta bestela izango ez zen zerga onura aplikatzeko eskubidea ematen badiote erakunde eratzaileari.

Aurreko 2. apartatuan aipatzen den kalkuluan ez dira kontuan edukiko zerga geroratuen aktibo hauek, besteak beste:

a) 2021eko azaroaren 30aren ondoren hartutako edo aldatutako eta agintaritza eskudunak emandako erabaki batetik eratorritako zerga geroratuaren aktiboak, baldin eta erabaki horrek bestela izango ez zen zerga onura bat aplikatzeko eskubidea ematen badio erakunde eratzaileari.

b) Erakunde eratzaile batek 2021eko azaroaren 30aren ondoren baliatutako hautapen baten ondoriozko zerga geroratuaren aktiboak, baldin eta hautapen horrek transakzio baten tratamendua aldatzen badu eta ondorioz aitortzen aurkeztuta dagoen zergaldi bateko zerga errenta gehitzen bada edo zerga administrazioak egiaztatu badu.

c) Zerga geroratuaren aktiboak edo pasiboak, aktibo edo pasibo baten zerga balioaren eta kontabilitate balioaren arteko diferentziari dagozkionak, betiere zerga balioa enpresen mozkinen gaineko zerga baten arabera zehaztu bada eta zerga hori 2021eko azaroaren 30aren ondoren eta trantsizioko zergaldiaren aurretik sartu bada indarrean eta aurretik halakorik eduki ez duen jurisdikzio batean aplikatzen bada.

Aurreko 2. apartatuan aipatzen den kalkuluan honako hauek ere ez dira kontuan edukiko: enpresen mozkinen gaineko zerga bat indarrean jarri aurreko 5 urteetatik aurrera sortutako zerga galerari dagozkion zerga geroratuaren aktiboak, 2021eko azaroaren 30aren ondoren eta trantsizioko zergaldiaren aurretik sartu bada indarrean aurretik zerga hori eduki ez duen jurisdikzio batean.

Aurreko a), b) eta c) letretan adierazitako zerga geroratuaren aktiboetara edo pasiboetara dagozkien zerga geroratuaren sarrerak edo gastuak ere foru arau honen 20. artikuluan ezartzen den zerga geroratuaren doikuntzaren zenbateko osotik eta laugarren xedapen iragankorrean arautzen diren zerga estali erraztuetatik kanpo geratuko dira.

4. Aurreko apartatuan ezartzen dena gorabehera, foru arau honen 20. artikuluan arautzen den zerga geroratuaren doikuntzaren zenbateko osoa eta laugarren xedapen iragankorrean arautzen diren zerga estali erraztuak kalkulatzeko, espezialitate hauek hartuko dira kontuan:

i) Aurreko apartatuaren a) eta b) letretan arautzen diren zerga geroratuaren aktiboetarako, itzulketari dagokion zerga geroratuaren gastua zenbatuko da, baldin eta itzulketari hori 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera eta 2026ko urtarrilaren 1a baino lehen hasten diren zergaldietan gertatzen bada eta zergaldi horiek 2027ko ekainaren 30a baino lehen amaitzen badira. Aurreko apartatuaren c) letretan arautzen diren zerga geroratuaren aktiboetarako, itzulketari dagokion zerga geroratuaren gastua zenbatuko da, baldin eta itzulketari hori 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera eta 2027ko urtarrilaren 1a baino lehen hasten diren zergaldietan gertatzen bada eta zergaldi horiek 2028ko ekainaren 30a baino lehen amaitzen badira.

ii) Aipatutako epealdietan aurreko i) letretan xedatutakoaren arabera zenbatzen den zerga geroratuaren gastuaren zenbateko metatua ezin izango da izan hasieran erregistratutako zerga geroratuaren aktibo horietako bakoitzaren ehuneko 20 baino gehiago, eta zerga tasa aplikagarriaren arabera kalkulatu da edo, txikiagoa bada, gutxieneko zerga tasaren arabera.

5. Aurreko 4. apartatuan ezarritakoa gorabehera, ez dira zerga geroratuaren aktibo baten itzulketari dagozkion zerga geroratuaren gastuak zenbatuko, baldin eta aktibo hori eragin duena hauetako bat bada:

i) agintaritza eskudunak emandako erabakia, hain zuzen ere 3. apartatuaren a) letretan aipatzen direnetako bat, betiere 2024ko azaroaren 18aren ondoren hartu edo aldatu bada.

ii) erakunde eratzaile batek 2024ko azaroaren 18aren ondoren baliatutako hautapena, 3. apartatuaren b) letretan ezartzen diren atzeraeraginezko ondorioak sortzen dituen.

iii) aktibo edo pasibo baten zerga balioaren eta kontabilitate balioaren arteko diferentzia, baldin eta zerga balioa 2024ko azaroaren 18aren ondoren indarrean sartutako enpresa mozkinen gaineko zerga baten arabera zehaztu bada, 3. apartatuaren c) letretan ezartzen denaren arabera.

4. apartatuan xedatzen denaren ondorioetarako, 3. apartatuaren a), b) eta c) letretan arautzen den zerga geroratuaren aktibo baten itzulketari dagokion zerga geroratuaren gastuaren zenbateko osoa ezin izango da izan inola ere aplikagarria den kontabilitate araudiaren eta 2024ko azaroaren 18a arteko akordioaren arabera itzuli beharreko zenbatekoa baino gehiago.

6. 2021eko azaroaren 30aren ondoren eta trantsizioko zergaldia hasi aurretik erakunde eratzaileen artean aktiboak eskualdatuz gero, izakinak ez diren eskuratutako aktiboen balioa erakunde eskualdatzaileen finantzaketako egoera orrietan agertzen diren transmititutako aktiboen kontabilitate balioa izango da, eta balio horren gaineko zerga geroratuaren aktiboak eta pasiboak zehaztuko dira.

7. Aurreko apartatuan xedatutakoa gorabehera, talde multinazionalak edo talde nazional handiak kontuan hartu ahal izango du eskualdatzetik eratorritako errentari lotutako zerga geroratuaren aktibo bat, baldin eta egiaztatu ahal bada erakunde eskualdatzaileak eskualdatze horretatik eratorritako errentaren gaineko zerga ordaindu duela, eta inola ere ez da gehituko 3. apartatuan aipatzen den zerga geroratuaren aktiboa, 4. apartatuan ezarritakoa aplikatu behar denean izan ezik.

Aurreko paragrafoan aipatzen den zerga geroratuaren ondoriozko aktiboak ezin izango du honako bi zenbateko hauetatik txikiena gainditu:

i) Gutxieneko zerga tasa erakunde eskuratzailerak kokatuta dagoen jurisdikzioko legeriaren arabera zehaztutako aktiboaren zerga balioaren eta aurreko 6. apartatuan aipatutako balioaren arteko diferentziaz biderkatzearen emaitzako balioa.

ii) Erakunde eskualdatzaileak eskualdatzearen ondoriozko errentaren gainean ordaindutako zerga, eta, behar denean, erakunde eskualdatzaileak xedapen iragankor honen 2. apartatuan xedatutakoaren arabera kontuan hartuko zukeen galerari dagokion zerga geroratuaren ondoriozko aktiboaren zenbatekoa, baldin eta eskualdatzearen ondoriozko errenta ezin izan bada kendu eskualdatzearen zergaldiko zerga errenta kalkulatzeari.

Apartatu honetan xedatutakoaren arabera zehaztutako zerga geroratuaren ondoriozko aktiboa dagokion aktiboaren balio galera erregistratuaren arabera aplikatuko da, edo, bestela, eskualdatzen denean edo baja ematen zaionean. Nolanahi ere, aktibo hori zerga geroratuagatik aitortzeak ez du murriztuko erakunde eskuratzaileraren zerga estali doituaren zenbatekoa.

8. Foru arau honen 20. artikularen 5. apartatuaren e) letran xedatzen dena gorabehera, trantsizioko zergaldiaren hasieran dauden eta azken erakunde nagusiaren finantzaketako egoera orri bateratuak egiteko erabiltzen den finantza kontabilitateko arau onargarri edo baimenduaren arabera prestatutako erakunde eratzaileraren finantzaketako egoera orrietan erregistratutako edo banakatutako kreditu fiskalei dagozkien zerga geroratuaren aktiboak kontuan hartuko dira trantsizioko zergaldiko eta, behar denean, hurrengo zergaldietako zerga tasa efektiboa zehazteko.

Aurrekoa gorabehera, foru arau honen 20. artikuluan arautzen den zerga geroratuaren doikuntzaren zenbateko osotik eta laugarren xedapen iragankorrean arautzen diren zerga estali erraztuetatik kanpo geratuko dira zerga geroratuaren ondoriozko sarrerak edo gastuak, zerga geroratuaren ondoriozko aktibo eta pasiboen itzulketari dagozkionak, 3. apartatuaren a), b) eta c) letretan adierazitakoak, 4. apartatuan ezarritakoa aplikatu behar denean izan ezik.

9. Aurreko apartatuan aipatutako zerga geroratuaren ondoriozko aktiboak kontsignatu diren balioa gutxieneko zerga tasa baino txikiagoa erabiliz kalkulatu bada, zerga geroratuaren ondoriozko aktibo horien zenbatekoa erakunde eratzaileraren finantzaketako egoera orri bateratuetan agertzen diren zerga geroratuaren aktiboen zenbatekoa izango da.

10. Aurreko 8. apartatuan aipatutako zerga geroratuaren ondoriozko aktiboak kontsignatu diren balioa gutxieneko zerga tasa baino handiagoa edo bera erabiliz kalkulatu bada, zerga geroratuaren ondoriozko aktibo horien zenbatekoa honela kalkulatu da: aplikatu gabe dauden kreditu fiskalei dagozkien zerga geroratuaren ondoriozko aktiboak, finantza kontabilitate onargarriaren edo baimenduaren arauaren arabera prestatutako finantza egoera orrietan erregistratuak edo banakatuak azken erakunde nagusiaren finantza

egoera bateratuak egiteko erabilitako finantza kontabilitatearen arau onargarriaren arabera, erregistratu ziren zergaren trantsizio aldiaren aurreko tasa nominalaz zatituko dira eta horren emaitza gutxieneko zerga tasaz biderkatuko da.

Trantsizioko zergaldiaren ondoko zergaldi batean jurisdikzio baten zerga tasa aldatzen denean, zerga geroratuen aktiboen zenbatekoa aurreko paragrafoan zehaztutako formularen arabera kalkulatu da berriro, zerga tasaren aldaketa gertatu den zergaldiaren hasieran azken erakunde nagusiaren finantza egoera bateratuak egiteko erabiltzen den finantza kontabilitateko arau onargarriaren edo baimenduaren arabera prestatutako finantzetako egoera orrietan agertzen ziren kreditu fiskalen zenbatekoa mantenduz. Zerga tasa aldatzearen ondorioz kalkulu berritik eratorritako zerga geroratuen aktiboen zenbatekoaren aldaketa ez da sartuko zergaldi horretako zerga geroratuen doikuntzaren zenbateko osoan. Kalkulu berria egin den zergaldian eta hurrengoetan geroratutako zergen doikuntza zehazteko, kalkulu berriaren ondoriozko zerga geroratuaren aktiboaren zenbatekoa hartuko da abiapuntutzat.

11. Aurreko 6. apartatuan xedatutakoaren salbuespen gisa, taldeak egiazta dezakeenean erakunde eskualdatzaileak 6. apartatu horretan aipatutako aktiboak eskualdatzetik eratorritako errentaren gainera zerga ordaindu duela, eta zerga hori gutxieneko zerga tasa eskualdatzetik eratorritako errentaz biderkatzearen emaitzaren beste edo gehiago bada, hurrengo paragrafoan ezartzen dena aplikatu ahal izango du.

Kasu horretan, erakunde eskuratzailerak eskuratzeko datan erregistratutako kontabilitate balioaren arabera baloratu ahal izango dira eskuratutako aktiboak, erakunde eskuratzaileraren finantzetako egoera orriak egiteko erabilitako finantza kontabilitateko arauaren arabera zehaztu bada balio hori, eta ez da aplikatuko aurreko 7. apartatuan xedatutakoa.

12. Baldin eta jurisdikzio bateko portu segurutzat jotzen den zerga osagarri nazionalaren araudian ez bada ezartzen 3. eta 4. apartatuetan arautzen dena, talde multinazionalak jurisdikzio horretan zerga osagarri nazionalarengatik ordaindu beharreko zenbatekoa ezin da izan zero, foru arau honen 36. artikularen 2. apartatuan xedatzen denaren arabera.

Aurreko paragrafoko kasuan talde multinazionalak foru arau honen 26. artikularen 4. apartatuan xedatzen dena aplikatu ahal izango du.

Bigarrena. Substantzia ekonomikoari lotutako errentak baztertzeari dagokionez aplikatu beharreko ehunekoak.

1. Foru arau honen 16. artikuluko 3. apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, % 5eko ehunekoa ordeztu egingo da, taula honetan jasotako urte naturalen abenduaren 31tik aurrera hasten den zergaldi bakoitzerako, urte horretarako ezarritako ehunekoarekin:

Aplikazio urtea	Aplikatu beharreko ehunekoa (%)
2023	10
2024	9,8
2025	9,6
2026	9,4
2027	9,2

Aplikazio urtea	Aplikatu beharreko ehunekoa (%)
2028	9,0
2029	8,2
2030	7,4
2031	6,6
2032	5,8

2. Foru arau honen 16. artikuluko 4. paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, % 5eko ehunekoa urte bakoitzerako ezarritako ehunekoarekin ordeztuko da, abenduaren 31tik aurrera hasten den zergaldi bakoitzerako, hurrengo taulan jasotzen diren urte naturaletan.

Urtea	Ehunekoa (%)
2023	8
2024	7,8
2025	7,6
2026	7,4
2027	7,2
2028	7,0
2029	6,6
2030	6,2
2031	5,8
2032	5,4

Hirugarrena. Zerga osagarriaren aldi baterako galdagarritasunik eza talde multinazionalentzat eta maila handiko talde nazionalentzat.

1. Foru arau honen 27. artikuluan aipatzen den zerga osagarri nazionala, zerga aplikatzen den lurraldean dauden azken entitate nagusiarena eta haren entitate eratzailleena, eta lurralde horretan kokatutako bitarteko entitate nagusiarena eta haren entitate eratzailleena, azken nagusia entitate baztertua denean, zero izango da:

a) Lehenengo bost urteetan, talde multinazionalaren nazioarteko jardueraren hasierako fasean.

b) Lehenengo bost urteetan, maila handiko talde nazionala lehen aldiz zerga osagarriaren mende dagoen zergaldiko lehen egunetik aurrera.

2. Foru Arau honetako 8. artikuluko 4. apartatuan aipatzen diren zergadunen bigarren mailako zerga osagarria, foru arau honetako 31. artikuluko 2. apartatuan aipatzen dena, zero izango da talde horren nazioarteko jardueraren hasierako fasearen lehen bost urteetan.

3. Talde multinazional bat bere nazioarteko jardueraren hasierako fasean dagoela ulertuko da, baldin eta, zergaldi batean, honako baldintza hauek betetzen badira:

- a) Entitate eratzailleak sei jurisdikzio desberdinetan baino gehiagotan ez egotea.
- b) Talde multinazionala osatzen duten eta erreferentziako jurisdikzioaz bestelako jurisdikzioetan kokatuta dauden erakunde guztien aktibo materialen kontabilitate-balio garbiaren baturak ez badu 50 milioi euroko zenbatekoa gainditzen.

Apartatu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, honako hau hartuko da erreferentziako jurisdikziotzat: talde multinazionala osatzen duten eta jurisdikzio horretan dauden erakunde guztien aktibo material guztien kontabilitate-balio garbiaren zenbateko osoa handiena denean talde multinazionala zerga osagarriaren aplikazio-eremuan lehen aldiz sartzen den zergaldian.

4. Xedapen iragankor honen 1. apartatuko a) letran eta 2. apartatuan aipatzen den bost urteko aldia talde multinazionala zerga honen aplikazio eremuan lehen aldiz sartzen den lehen zergaldia hasten denetik aurrera hasiko da kontatzen.

5. Entitate eratzaille deklaratzailleak talde multinazionalaren nazioarteko jardueraren hasierako fasearen hasiera kokatuta dagoen jurisdikzioko zerga-administrazioari jakinaraziko dio.

Foru-arau honen 49. artikuluan aipatzen den entitate eratzaille aitortzailea zergaren aplikazio-lurraldean badago, Arabako Foru Aldundiari jakinaraziko dio, foru-arau honen 49.2 artikuluan bigarren apartatuan xedatutakoaren arabera, talde multinazionalaren nazioarteko jardueraren hasierako fasearen hasiera. Era berean, zergaren aplikazio-lurraldean kokatutako talde nazional handi baten entitate eratzailleak Arabako Foru Aldundiari jakinaraziko dio xedapen iragankor honen 1. apartatuko b) idatz-zatian aurreikusitako bost urteko aldiaren hasiera. Apartatu honetan aipatzen den komunikazioa erregelamendu bidez zehazten den moduan aurkeztuko da.

Laugarrena. Zerga osagarria ezin da eskatu herrialdekako informazio onargarriaren arabera.

1. Xedapen iragankor honetan ezarritakoaren ondorioetarako, definizio hauek erabiliko dira:

a) Herrialdekako informazio onargarria: dagokion zerga-administrazioari finantza-egoera onargarriak erabiliz egindako eta aurkeztutako herrialdekako informazioa. Herrialdekako informazioa honako hauetan adierazitakoa da: ELGAren eta G-20ren proiektuaren 13. ekintzaren azken txostena, zerga-oinarriaren higadurari eta mozkinen lekualdatzeari buruzkoa («Transferentzia-prezioei eta herrialdekako txostenari buruzko dokumentazioa»); Kontseiluaren 2016ko maiatzaren 25eko 2016/881 (EB) Zuzentaraua, 2011/16/EB Zuzentaraua aldatzen duena, fiskalitatearen arloko nahitaezko informazio-truke automatikoari dagokionez; eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduaren 21.bis artikulua, abuztuaren 1eko 41/2014 Foru Dekretuaren bidez onartua.

b) Finantza-egoera onargarriak:

i) Azken entitate nagusiaren finantzetako egoera-orri bateratuak egiteko erabiltzen den finantza-kontabilitateko arau onargarri edo baimenduaren arabera prestatutako finantzetako egoera-orriak.

ii) Entitate eratzaile bakoitzaren egoera-orri finantzarioak, baldin eta finantza-kontabilitateko arau onargarri edo baimendu baten arabera eginda badaude eta finantzetako egoera-orri horietan jasotako informazioa kontabilitate-arau horren arabera erregistratu bada eta informazio hori fidagarria bada.

iii) Entitate eratzailearen egoera-orri finantzarioak, talde multinazionalaren herrialdekako informazioa prestatzeko erabiltzen direnak, baldin eta erakunde hori ez bada finkatzen integrazio globaleko metodoaren bidez entitate nagusiaren finantzetako egoera-orri bateratuetan, garrantzi erlatiboko edo materialtasuneko arrazoiengatik soilik.

c) Aldi iragankorra: 2023ko abenduaren 31tik 2026ko abenduaren 31ra arte hasitako zergaldiak.

d) Tasa iragankorra:

% 15, 2023an eta 2024an hasten diren zergaldietarako.

% 16, 2025ean hasten diren zergaldietarako.

% 17, 2026an hasten diren zergaldietarako.

e) Taldeko diru-sarrera gordinak: kasuan kasuko jurisdikzioetarako zerga aplikatzen den lurraldeko zerga-administrazioak herrialdekako informazio onargarri batean jasotakoa.

f) Enpresa-mozkinen gaineko zergaren edo izaera bereko edo antzeko zergen aurreko emaitza: enpresa-mozkinen gaineko zergaren edo izaera bereko edo antzeko zergen aurreko emaitzaren zenbatekoa, herrialdekako informazio onargarri batean kontsignatuta, zerga aplikatzen den lurraldeko zerga-administrazioak kasuan kasuko jurisdikzioetarako jasotako informazioaren arabera.

g) Estalitako zerga sinplifikatuak: dagozkien jurisdikzioak eratzen dituzten entitateen egoera-orri finantzarioetan erregistratutako enpresa-mozkinen gaineko zergaren gastua, estalitako zergarik ez duten zergen zenbatekoa kenduta, foru arau honen 18. artikulua 2. apartatua xedatutakoaren arabera, eta zalantzazko posizio fiskalekin lotutako zerga-gastuan.

h) Zerga-tasa efektibo sinplifikatua: estalitako zerga sinplifikatuen zenbatekoa zati enpresa-mozkinen gaineko zergaren edo antzeko izaerako zergaren aurreko emaitzak, herrialdekako informazio onargarrian jasotakoak eta zerga aplikatu den lurraldeko dagokion zerga-administrazioak kasuan kasuko jurisdikzioetarako jasotakoak.

2. Foru arau honetan araututako zerga osagarria zero izango da, xedapen iragankor honek aipatzen duen aldi iragankorrean, herrialdekako informazio onargarria aurkezten duen talde multinazional bateko kide diren zergadunentzat, zerga aplikatzen den lurraldeko dagokion zerga administrazioak jasotakoa, honako hiru baldintza hauetako bat betetzen duten jurisdikzio eta zergaldiei dagokienez:

a) Taldearen diru-sarrera gordinen zenbatekoa eta jurisdikziorako enpresa-mozkinak edo izaera bereko edo antzeko zergak zergapetzen dituen zergaren aurreko emaitza 10 milioi eurokoa edo txikiagoa eta milioi bat eurokoa izatea, hurrenez hurren.

Baldintza hori betetzat joko da enpresaren mozkinak zergapetzen dituen zergaren aurreko emaitza baliogabea edo negatiboa denean.

Idatz-zati honetan aipatzen den taldearen diru-sarrera gordinen zenbatekoa kalkulatzeko, kontuan hartuko dira jurisdikzioan dauden eta salmentarako mantentzen diren entitate eratzaileen diru-sarrera gordinak.

b) Jurisdikzioaren zerga-tasa efektibo sinplifikatua, trantsizio-aldiko zergaldi bakoitzerako, aldi horretarako ezarritako tasa iragankorraren berdina edo handiagoa izatea.

c) Zerga aurreko emaitzak, baldin eta zerga horren antzeko edo antzeko izaerako enpresa-mozkinak edo zergak zergapetzen baditu, foru arau honetan xedatutakoaren arabera jurisdikzio jakin horretako substantzia ekonomikoari lotutako errentak baztertzeari dagokion zenbatekoa baino txikiagoak edo berdinak badira.

Baldintza hori betetzat joko da enpresaren mozkinak zergapetzen dituen zergaren aurreko emaitza baliogabea edo negatiboa denean.

3. Arau bereziak.

a) Xedapen iragankor honen 2. apartatuan ezarritakoa foru arau honen 40. artikuluan aipatzen diren baterako negozioei eta haien filialei aplikatuko zaie, talde multinazional bereizi bat osatzen duten erakundeak balira bezala, baina irabazi edo galera onargarriak eta guztizko diru-sarrera gordinak zehazteko orduan, finantza egoera onargarrietan erregistratutakotik abiatuko da.

b) Xedapen iragankor honen 2. apartatuan xedatutakoa ez zaie aplikatuko jurisdikzio batean egoiliar fiskaltzat jotzen diren inbertsio-erakundeei, herrialdekako informazio onargarriaren ondorioetarako, eta haien zerga osagarria zehaztu beharko dute foru arau honetan aurreikusitakoaren arabera, honako kasu hauetan izan ezik:

i) [\(1\)](#) Inbertsio erakundea eta inbertsio erakunde horren partaide diren erakunde eratzaile guztiak jurisdikzio bereko egoiliarak badira.

ii) Foru arau honen 46. eta 47. artikuluetan inbertsio-erakunde horri buruz aurreikusitako aukerak gauzatu ez badira.

Aurrekoarekin bat etorriz, xedapen iragankor honen 2. apartatuan agindutakoa aplikatu behar denean, inbertsio-erakundearen diru-sarrera gordinak eta estalitako zergak, enpresa-mozkinak edo izaera bereko edo antzeko zergak zergapetzen dituen zergaren aurreko emaitza, haren partaidetzen titular zuzenen jurisdikzioan soilik hartu beharko dira kontuan, partaidetza horien proportzioan, inbertsio-erakundea herrialdekako informazioan agertzen den jurisdikzioa edozein dela ere.

b) idatz-zati honetan xedatutakoaren ondorioetarako, inbertsio-erakunde batek aseguruaren inbertsio-erakunde bat barne hartzen du.

c) [\(1\)](#) Xedapen iragankor honen 2. apartatuan ezartzen dena ez da aplikatuko azken erakunde nagusiek egoitza duten jurisdikzioan, erakunde horiek foru arau honen 42. artikuluan xedatzen dena aplikatzen duten erakunde gardenak direnean, ez dibidenduen kengarritasun araubideari lotutako azken erakunde nagusietan, erakunde horiek foru arau honen 43. artikuluan xedatzen dena aplikatzen duten erakundeak direnean, salbu eta partaide bakarrak pertsona onargarriak badira.

Azken erakunde nagusi batek foru arau honen 42. edo 43. artikuluetan xedatzen dena aplikatzen badu, enpresa mozkinak kargatzen dituen zergaren edo izaera bereko edo antzeko izaerako zergaren aurreko emaitza pertsona onargarri bati esleitu edo banatu beharreko proportzioan murriztuko da.

c) letra honetan ezartzen denaren ondorioetarako, pertsona onargarritzat hartuko dira foru arau honen 42. artikuluen 2. eta 3. apartatuen a) eta b) letretan ezartzen direnak, artikulua hori aplikatu behar denean, eta foru arau honen 43. artikuluen 4. apartatuaren a), b) eta c) letretan ezartzen direnak, artikulua hori aplikatu behar denean.

d) Jurisdikzio batean 50 milioi eurotik gora egin ez den arrazoizko balioaren galera garbia emaitzatik kanpo geratuko da enpresa-mozkinak edo antzeko izaera duten zergak zergapetzen dituen zergaren aurretik. Ondorio horietarako, egin gabeko arrazoizko balioaren galera garbitzat hartuko da beste erakunde bateko partaidetzen arrazoizko balioan izandako aldaketetatik sortutako galera guztien batura, edozein irabazigatik murriztuta, partaidetza ez-esanguratsuak direnean izan ezik.

4. Xedapen iragankor honen 2. apartatua ezarritakoa ez da aplikatuko entitate eratzailerik edo talde multinazional hauei dagokienez:

a) Egoitza gabeko entitate eratzailerik.

b) Foru arau honen 41. artikuluan aipatzen diren entitate nagusi ugari dituzten talde multinazionalak, talde konbinatuen informazioa herrialde bakoitzeko informazio bakar batean sartuta ez dagoenean, eta informazio hori zerga aplikatzen den lurraldeko dagokion zerga-administrazioak jasotzen badu.

c) Foru arau honen 44. artikuluan aipatzen den banaketa-araubide onargarria aplikatzea aukeratu den jurisdikzioetan dauden entitate eratzailerik.

5. Talde multinazional bat foru arau honen aplikazio-eremuan badago eta xedapen iragankor honetan xedatutakoa ez badu aplikatzen zergaldian herrialdekako onar daitekeen informazioan jasotako jurisdikzioaren bati dagokionez, ezingo du aplikatu jurisdikzio horri dagokionez geroagoko zergaldi batean.

6. Xedapen iragankor honetan ezarritakoa 2027ko urtarrilaren 1a baino lehen hasi eta 2028ko uztailaren 1a baino lehen amaitzen diren zergaldiei aplikatuko zaie.

Bosgarrena. Trantsizioko zergaldiari dagozkion zerga osagarriaren informazio aitorpena eta zerga-aitorpena.

1. Foru arau honen 49. artikuluen 6. apartatua xedatutakoa gorabehera, zerga osagarriari buruzko informazio aitorpena eta artikulua horrek aipatzen dituen komunikazioak Zerga Administrazioan aurkeztuko dira, lehen zergaldia amaitu eta hemezortzigarren hilabetearen azken egunera arte, non talde multinazional edo talde nazional handi bat lehen aldiz sartzen den zerga osagarri baten aplikazio-eremuan, errentak sartzeko arau onargarri baten edo behar bezala zergapetuta ez dauden mozkinen arau onargarri baten arabera.

2. Foru arau honen 52. artikuluan aipatzen den zerga-aitorpena 25 egun naturaleko epean aurkeztu beharko da, talde multinazional edo talde nazional handi bat zerga osagarri baten aplikazio-eremuan lehen aldiz sartzen den lehen zergaldia amaitu ondorengo hemezortzigarren hilabetearen ondoren, errentak sartzeko arau onargarri baten edo behar bezala zergapetuta ez dauden mozkinen arau onargarri baten arabera.

Seigarrena. Behar bezala zergapetuta ez dauden mozkinen arauaren aldi baterako galdagarritasunik eza.

Hamabi hilabetetik beherako zergaldia duten talde multinazionalen kasuan, 2025eko abenduaren 31 baino lehen hasi eta 2026ko abenduaren 31 baino lehen amaitzen bada, azken entitate nagusia kokatuta dagoen jurisdikzioari dagokionez, foru arau honen 30. artikulua arabera behar bezala zergapetuta ez dauden mozkinen araua aplikatzearen ondoriozko zerga osagarriaren zenbatekoa zero izango da, baldin eta azken entitate nagusiak enpresa-mozkinak gutxienez % 20ko zerga-tasa nominalean kargatzen dituen zerga bat izan badu xedapen hau aplikatzekoa den zergaldi bakoitzean.

XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA

Foru arau honetan xedatzen denaren aurka dauden maila bereko edo beheragoko mailako xedapen guztiak indargabetzen dira.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Arauak emateko gaikuntza.

Arabako foru Aldundiari eta Ogasun eta Finantza eta Aurrekontu Sailaren foru diputatuari baimena ematen zaie foru arau honetan xedatzen dena aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Bigarrena. Indarrean sartzea.

Foru arau hau ALHAOn argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan sortuko ditu ondorioak.

OHARRAK

(1) 2/2025 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, abenduaren 23koa.
(ALHAO, 147. zk., 25-12-29koa).

2/2026 Foru Araua, urtarrilaren 21ekoa, abenduaren 23ko 2/2025 Zerga Premiazko Araugintzako dekretua baliozkotzearena.
(ALHAO. 15. ZK. 26-2-4koa).